

# Arrasate

P R E S S

1999ko  
irailak 17  
463. zenb.



**Merezi  
ote?**

**IKUSPEGIA: JM VELEZ DE MENDIZABAL • KULTURA: SEXUALITATE BULEGOA  
EUREN IKUSPUNTUTIK: JOSE MARI SARASUA • KIROLAK: KENCI-ARRASATE**

# ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK



## BI SOLAIRUKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 943 79 41 82

**ARRASATE**

# GRUPO RKAUZ

FAGOR

## ALTZARIAK



Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxe: 943 79 23 51

**ARETXABALETA**

## SUKALDE INTEGRALA



Mitarte 3 • Tel. / Faxe: 943 77 04 55

**ARETXABALETA**

# Unibertsitatea eta langabezia

Unibertsitate publiko eta pribatuaren arteko lehiaz aritu ginen zenbait lagun lehengo astean irratsaio batean. Denetarik iritziak —zenbat buru hainbat aburu!— eta jarrera kontrajarriak ere eman ziren gai interesgarri honen inguruan. Eta, noski, sokari ez zaio zorionez amaierarik antzematen, askatasunik den bitartean bi mota horietako unibertsitateak izango baititugu, aukeran.

Nire iritiz, bi modelo ez dira elkarren kontrakoak izan behar. Eta hori diot, bietatik heziketa jario egokia etor daitekeela ziur nagoelako. Euskal Herriak egundoko unibertsitate pribatu bikainak ditu, garbi asko frogatua geratu den bezala. Nafarroako Unibertsitatea —Opus— eta Deustukoa —jesuitak— eredu



JM Velez de Mendizabal

ederrak izan dira, kudeaketa estilo egokiarekin, eta emaitzak ere halakoak jaso dituzte horietako geletatik pasatutako gehienek. Orain, hirugarren unibertsitate pribatu berri bat abian da, arrasatearrongandik oso hurbil eta hezkuntza sistema irabazten irten dela esatera ausartzen naiz, okertzeko heldurrik gabe.

Orain hurrengo artikuluan batean irakurtzen nion Amando de Miguel espainiar soziologoari, unibertsitateak langabetuak fabrikatzeko makinak direla. De Miguel, orain pare bat urte Arabako Legebiltzarrarentzat euskararen gaineko ikerketa lan bat

burutu zuen pertsonaia da. Bada, unibertsitateak eta langabezia lotu dituen “bikaintasun zientifiko” horrekin egin bazuen euskarari zegokion ikerketa, ederto gaude! Izan ere, noiztik da unibertsitate-

aren betebeharra lan mundurako gizabanakoak gertutzea? Nik uste izan dut beti, unibertsitateak ongi heziketa pertsonak sortu behar dituela.

Unibertsitateak hezkuntza sistemaren zorroztasun akademikoa adierazi behar du, ikerkuntzarako garapena eta kanpoko inguruarekin erabateko harreman zuzena, kristalezko laborategi itxia bilaka ez dadin. Teorizazioaren irakaskuntzan indartsu eta ezagupidetzaren aplikapenean iaio izatea eskatu behar zaio. Dena, noski, etika eta kulturaren esparruan. Hortik kanpo, ezer gutxi eska dakiok. Beraz, ez ditzagun nahas hezibidea eta ogibidea.

Unibertsitate publiko eta pribatuak izpirituak hezitzeko sortu dira, teorian behintzat. Beste gauza bat da, denon artean sortu dugun gizarte mota honek mekanismo aproposak eraiki ote dituen, unibertsitario ubide emaritsuetatik datorkigun jario etengabeari behar bezalako erantzuna emateko. Eta soziologoak, aurrerakoi eta ausartak bederen, horretan aritu beharko lirake, gizarte orekatuago eta sosegu handiagokoa sortzen, alegia. ■

**“Beti uste izan dut unibertsitateak ongi heziketa pertsonak sortu behar dituela”**

*“Tuberkulosiaren garaietan bezala, oraindik ere zenbaitek izkutatu egiten ditu Alzheimerrek jotako gaixoak”*

Castor Uribe



ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otxalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89 E-mail: arrasatepress@euskalnet.net Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Joxe Aranzabal. Kazetariak: Marijo Deogracias, Urbane Madera, Maider Osa. Publizitatea: Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroja. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). Administrazioa: Maite Urriolabellia (Tel.: 943 71 23 90). Diseinua: Maddi Trubuelo. Asteburuetako berriemakilea: Monika Belastegi. Kolaboratzaileak: Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. Banaketa arduraduna: Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 26). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.400. Logo-Gordailua: 112486. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritziaren erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundien laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

# 3.000

**ikasle inguru izango ditu Mondragon Unibertsitateak**

Ia 3.000 ikaslerekin sartuko da MU 2000. urtean. Aurreko ikasturtean baino %25 gehiago. Egiten ari diren azterketen arabera, hamar urte barru 4.000-5.000 ikasle izango litzuke Arrasateko Unibertsitateak..

ITURRI ONETIK

## Euskaltzaindiaren arauak

Euskal Herriko Unibertsitatearen Euskara Institutuak jende askok eskertuko duen liburu bat argitaratu du: “Euskaltzaindiaren Araugintza Berria: Ikastaroa”, Xabier Alberdik prestatua.

Euskaltzaindiak 1990eko hamarkadan hartu dituen arau garrantzitsuenak biltzen ditu, sei ataletan: araugintzari buruzko argibideak, arau berrien laburpena, arauak berak, hiztegi batua o letraraino, ariketak eta ariketa horien soluzioak.

EHUko ikasleen, irakasleen eta langileen euskara egunean jartzeko eta hobetzeko helburuarekin atara du unibertsitateak liburu. Baina euskara irakasleek eta kazetariok ere tresna baliosa izango dugu eguneroko jardunean, liburu honetan dugu-eta, modu eroso eta erabilgarrian Euskaltzaindiaren araugintza berria.

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 17**  
 • Korkuera, Musakola
- Larunbata, 18**  
 • Irizar, Erguin
- Igandea, 19**  
 • Amezua, Santa Marina
- Astelehena, 20**  
 • Zabala, Zarugalde
- Astearte, 21**  
 • Ruiz, Maala
- Asteazkena, 22**  
 • Morales, San Andres
- Osteguna, 23**  
 • Azkoaga, Ferrerías

## BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
 Iguatorialdea ..... 943 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 943 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 943 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**  
 Bergara ..... 943 76 55 76
- DYA**  
 Antzuola ..... 943 78 71 57
- Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) ..... 943 03 53 00  
 • Txanda hartzeko: medikuntza  
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50  
 • Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
 • Ikuskatzailea ..... 943 03 53 52  
 • Kanpoko kontsultak: ..... 943 03 53 11  
 • Fax zenbakia: ..... 943 03 05 14  
 Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
 Aramaio ..... 945 45 51 16
- Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**  
 Oñati ..... 943 78 04 11  
 Bergara ..... 943 77 91 06  
 Arrasate ..... 943 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 943 71 44 07
- Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
 Udal taldea ..... 943 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00  
 Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 ..... 943 79 76 44  
 ..... 943 79 76 78
- Garraioak**  
 Taxiak ..... 943 79 12 22  
 PESA ..... 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Monterron liburategia**  
 Monterron ..... 943 77 01 05
- Irratia**  
 Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## HAU JASANGAITZA DA!

Azken aldi honetan auto pilaketa erraldioen arazoa larriagotzen doan heinean, auto gidari askoren artean ohikoa bilakatu den ohiua dugu goikoa. Gure gizartean beribilari diogun mirespen liluragarriak arazo eta kalte larriak sortzen ditu egunero.

Hona hemen zenbait datu argigarri: Munduko Osasun Erakundearen arabera, trafiko istripuak osasun publikoaren arazo larriak dira. Urtero munduko errepideetan barrena, 70.000 pertsona hiltzen dira eta 10 eta 15 milioi bitartean zauritu egiten dira; hau da, 50 segunduero heriotza bat gertatzen da eta bi segunduero zaurituren bat.

Datu hauek, ezbaiz gabe, edozein kezkatzeko modukoak dira, baina badirudi, besterik gabe, onartu egiten ditugula, autoak sortzen dizkigun ustezko askatasun eta erosotasuna ordainsari gisa hartzen baititugu. Aginte publikoak egoera larri honen aurrean hainbat irtenbide planteatzen

ditu: alkoholemia mailaren murrizketa, lastertasun kontrolak eta trafiko zainzaileak ugaltzea, etab. Nolanahi ere, irtenbide hauek ez dute arazoa konpontzen, ezta konponduko ere; kontuan hartu istripuek eta hauek eragindako hildakoak %60 igo zirela Gipuzkoan, aipatu neurriak indarrean izan arren.

Zein da, beraz, arazo honen benetako mamia? Gure gizartean autoaren kultura barneraino sartua dagoela, honen ondorioz auto pilaketa eta masifikazioak neurritz kanpo ugaldu direlarik.

Prozesu hau, dena dela, ez da kasualitatez gertatu, beribilen eta erregaien multinazional handiak arduratu baitira eta baliabideak jarri baitituzte autoaren mirespen hau biztanleengan errietaraino sartzen.

Gure ingurune hurbilari erreparatu gero, Arrasateko datuak argigarriak dira oso: 24.000 bat biztanle izanik, 10.000 beribil daude. Datu esanguratsua benetan, azterketa

sakona mereziko lukeena.

Autoari diogun mirespen neurrigabe hau errotik aldatu beharra dago eta baliabideak jarri behar dira hori gerta dadin. Bestalde, beribilaren esanahia bere osoan aztertu behar dugu: beribilak kutsatu egiten du gure ingurunea, CO<sub>2</sub> isurketen ondorioz. Murriztu egiten du biztanleen bizi mailaren kalitatea, zarata, pilaketa eta kutsaduren ondorioz.

Beribilek errepide gehiago egitea dakarte, naturan kalte ekologiko nabarmenak eraginez. Errepide gehiago egiteak, gainera, ez du zirkulazioaren arazoa konpontzen, honen lekuko Estatu Batuetako kasua dugu, non munduko autobide sare handiena eduki arren, auto pilaketak eguneroko ogia baitira.

Hasierara itzuliz, egoera jasangaitza da, eta irtenbide zehatz eta errealak bilatzeko garaia da, pertsonaren eta ingurunearen ongizatean oinarritutako irtenbidea, alegia.

Oskar Loiti.

## Telefono berriak

Arrasate Komunikabideak elkarteak telefono berriak ditu. Hauek dituzue zenbaki berriak:

- Arrasate Press ..... 943 71 25 11
- ATB ..... 943 71 23 93
- Administrazioa ..... 943 71 23 90
- Publizitatea ..... 943 71 23 91

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
 Tel.: 943 79 81 82

**UGARAN**  
 jatetxea

Garagartza auzoa  
 Tel.: 943 79 76 58  
 ARRASATE

**M**

**MEMESA**

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

# Espainiako Itzuliak Euskal Herria zeharkatu beharko luke?

*Txomin Perurena txirrindulari ohia horren alde agertu da.*



**Javier Letamendi**  
71 urte  
Erretiratua

Bai. Euskaldun ugari dau-  
de txirrindularitzan eta oso  
onak, gainera.



**Josetxo Lopez**  
(38 urte)  
Langilea

Bai. Ez pasatzearena aspal-  
diko kontua da.



**Olatz Cillaurren**  
(28 urte)  
Langilea

Ez. Espainiako Itzulia da,  
ez Euskal Herrikoa.



**Mikel Usobiaga**  
(9 urte)  
Ikaslea

Ez. Espainiako Itzulia bal-  
din bada, Espainian egitea  
dute.



**Ruth Osinaga**  
(25 urte)  
Langilea

Hemendik pasatzeko aur-  
kako asko ditu, baina Tourra,  
adibidez, Donostian hasi zen.  
Ez du zentzurik Espainiako-  
aren kontra egotea.



**Iker Agirre**  
(27 urte)  
Langilea

Zergaitik ez? Beste leku  
batzuetatik pasatzen den  
moduan, hemendik ere pasa-  
tu beharko litzateke.



**Joaquina Romero Gullon**  
(46 urte)  
Langilea

Noski. Espainako Itzulia  
oso garrantzitsua da.



**Arrate Axpe**  
(30 urte)  
Langilea

Nire ustez, oso ondo egon-  
go litzateke.

## HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiraletan  
5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

*Sagardotegia*

**ITURRIETA**

Arraga auzoa  
Tel.: 945 44 55 85  
ARAMAIO

**USTEAK USTE**

*Elorrio eta Arrasate*

**A**rrasaten jaioa banaiz ere, Elorri bizi naiz azken bederlatzi urte hauetan. Ura eta ardoa bezalakoak dira Kanpanzarren alde bietako herri hauek.

Elorrio politagoa da, berez, etxe ederragoak ditu eta inguru zoragarriak. Hala ere, kutsadura izugarria du. Amaten zikinkeriaz kezaten direnek ez dakite zer den ona.

Arrasate, aldiz, dinamikoagoa da oro har, batez ere ekonomian, politikan eta euskalgintzan.

Bada, hala ere, Elorrio Arrasateren aurrean dabilen **glo bat: kultura programazioan. Mondragoek baino ia 17.000 bizilagun gutxiago ditu, kulturarako askoz ere aurrekontu murriztagoa eta, hala ere, Berrio-Otxoaren herrian sekulako programazio ona eta erakargarria dute, urte osoan zehar.**

Gazte talde bat dabil han Arriola antzokian lanean, kultura gaiak aurrera ateratzen, sekulako lan ona eta polita egiten duena. Diru gutxiagorekin, lan aparta egiten dute.

Zer falta zaio Arrasateri beste horrenbeste lortzeko?

Joxe Aranzabal



**Mundukide Fundazioa**

\* Jose Mari Sarasua

**H**erriar gehienok gutxi dakigu Hirugarren Mundua deitzen diren planetako herrialde pobretuen egoeraz eta, batez ere, egoera horren oinarriko arrazoiez. Gizadiaren erdiari eragiten dionez, eta ia 1.000 miloi pertsona aparteko pobrezian bizi direnez, munduko albistegai nagusia izan beharko luke, baina katastrofe, gerra eta gosete bereziren bat dagoenean bakarrik agertzen da gure aurrean. Hala ere, errealitatea gogorra da: miseria gehitzen ari da. Munduko aldeak handitzen ari dira.

Mundukidek ildo bat ireki nahi du herrialde pobretuen garapenean lankidetzan aitzeko moduan. Gogoeta batek abiatzen da: gure garapen aberats hau ez da etorri gure lanari esker bakarrik. Neurri batean, munduko harreman ekonomiko bidegabeei esker izan da posible gure kontsumo maila. Historia atzeragotik dator, noski. Bai gaur egungo prezio inpos-

tzeez, merkataritza bidegabeak, lehengaien ustiaketak eta bai lehenagoko konkistek, genozidioek, esklabutzak, kolonialismoak eta abarrek izugarriko eragina dute haien ezintasunean.

Hil honetan osatu den Fundazioak lana (enpresak) jarri nahi du nazioarteko lankidetzaren ildoan. Lan esparruak, batetik, diru baliabideak ekar ditzake zeregin honetarako. Bestetik, iritzi eta presio indarra sor dezake goragoko indarrek erabaki egokiak harditzaten harreman bidezkoagorako bidean.

Hiru lan ildo izango ditu Fundazio berriak:

**“ Saihestu egin behar da Hirugarren Munduko herriei gure bizitzeko eredia transmititzeko joera ”**

- 60.000 lagun inguruko eskualdeen garapen osoan parte hartzea, etorkizuneko garapen autonomoaren oinarriak jartzen lagunduz. Lan honetan, tokian tokiko jendearen prestakuntzan laguntzea da garrantzitsua, eurak izan daitezen behar duten garapen ereduaren bultzatzaile.


Saihestu egin behar da gure bizi eredia transmititzeko joera. Euren kultura eta idiosinkrasiaren baitan, euren lehenasunen arabera egin behar da lana.

- Hirugarren Munduko herrietako kooperatiben indartzea eta kooperatibak sortzen laguntzea, prestakuntza tekniko nahiz mailegu bigunen bidez lagunduz.

- Esperientzien trukea, komunitate garapenean ari diren errealitateen eta gure kooperatiba esperientziaren artean. Hirugarren Munduan esperientzia komunitario interesgarri asko dago bai herri indigenetan eta bai garapenean ari diren beste errealitateetan. Horien ekarpenekin (MU, MCC...) aberastea da helburua, aldi berean haiei gure kooperatiben esperientziaren ekarpenak helaraziz.

Mundukide kooperatiben bultzadaz sortu bada ere, zabalik dago nahi duten enpresa eta pertsona gutzientzat. Deba Garaiko gobernu kanpoko sei erakunde bultzatuta sortu da, baina Euskal Herri osoko ekarpenetara irekita dago.

\*Sustatzailea



**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



**SOLARIUMA**


Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 943 77 13 78

Gazte Kontuaren  
Zerbitzua

EUSKADIKO KUTXA

# GAZTE KONTUA

Ireki ezazu



modan dagoelako



Orain, 25.000 pta.rekin Euskadiko Kutxan Gazte Kontu bat irekitzeagatik, aterkia ERAMATEKO soin-maleta bat (aterki eta guzti) eskuratuko duzu. Gazte Kontuarekin eskura ditzakezun gainerako gauzez hobe ez hitz egitea, gaur bertan izango baituzu horien berri kontua irekitzen duzunean. A! ia ahaztu zait. Zalantzaren bat baduzu, **galdetu 901 200 000 Gazte Telefonoan**. Gazte Kontua apartekoa da eta gainera boladan dago.

Promozio honek 99-10-11ra arte edo izakinak agortu arte balio du.



901 200 000

<http://www.cajalaboral.es>



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun  
zuzena

# 17 ostirala

■ ZINEA

*Star Wars I*, Alai zineman, 19:00etan eta 22:00etan.

■ SAN MARTINAK BERGARAN

Bertso jaialdia izango da 22:30ean Novedades zine aretoan. Ainhoa Agirreazaldegi, Aitor Mendiluze, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Xabier Silveira bertsolariak arituko dira, Karlos Aizpurua gai jar-tzailearekin.

Gauerdian Kaos Etiliko eta Factoria 77 taldeek emanaldia eskainiko dute San Martin plazan.

■ BERTSO TXAPELKETA

Leintz Bailarako bertso taldeak Gipuzkoako Herri Arteko Bertso Txapelketan arituko dira 22:00etan Azpeitian. Danel Goikoleak, Jon Sarasuak eta Kike Dapenak osatzen dute Leintzko taldea. Aurrez aurre Azpeitiko Oñatz taldeko hirukotea izango dute. Saioa Azpeitiko Soreazu antzokian izango da.

# 18 larunbata

■ ZINEA

*Star Wars I*, Alai zineman, 16:45ean, 19:30ean eta 22:15ean.

■ NORK BERE BURUA ZAINDU

Udaleko Emakume Sailak nork bere burua zaintzeko ikastaroa antolatu du. Saioak larunbat eta igandean izango dira. Larunbatean goizean eta arratsaldean eta igandean, goizean. Saioak Maite Monroyk zuzenduko ditu.

■ LORE JOKOAK ARAMAION

Euskal Herriko Bertsolari Eskolen topaketa egingo da, Lore Jokoen mendeurrenaren barruan:

- 11:30 bertsolaritzaren erronka nagusiak eta EHBE.
- 16:00 bertsolari gazteen egitasmoa 1999-2000 ikasturterako.
- 22:00 bertso saioa pilotalekuan.
- 24:00 bertso zahar eta berrien kantaldi-karaoketa gitarra lagunduta, Iturrieta Sagardotegian.

■ SAN MARTINAK

Barazki, fruitu, lore eta gazta lehiaketa egingo da San Martin plazan, 09:30ean hasita. Arratsaldeko 16:00etan Euskal Herriko Goitibehera ligaren jaitsiera egingo da Asentsiotik Angiozarrera. 19:30ean San Martin Herri krosa jokatu da eta 20:00etan Bergarako Orfeoioak emanaldia eskainiko du pilotalekuan. Gaueko 23:00etan *La Parranda* tal-

dearen emanaldia, Fraisko-zuri plazan.

■ ANDALUZIARREN TOPAKETA

Euskal Herriko andaluziarren 10. topaketa egingo da Arruenako parkean, Eroski ondoan. 19:00etan Federakundeko dantza taldeen emanaldia eta 22:00etan *Flash* orkestraren emanaldia.

■ TECHNO MUSIKA JAM ARETOAN

*Kikepravda, Pedro, Imanol, Alain, Pablo, Asier, Ros* eta *Koldo DJ*ak arituko dira Bergarako Jam aretoan.

# 19 igandea

■ ZINEA

*Star Wars I*, Alai zineman, 16:45ean, 19:30ean eta 22:15ean.

■ ANDALUZIARREN TOPAKETA

- 10:30 Rocioko meza, Fara-eko abesbatzak lagunduta.
- 11:30 dantza emanaldia.
- 12:00 Agintarien harrera.
- 16:30 dantza emanaldia.
- 20:00 Alegria de la Sierra taldearen emanaldia.

Gaztelu puzgarriak eta kart bidea ere antolatu dituzte, egun osorako.

■ BESAIDE EGUNA

Besaide Eguna ospatuko da. Arrasateko Txalapartariak eta Trikitilariak ongi etorria egingo diete Besaide gainean mendigoizale guztiei. 11:30ean meza. Ondoren, Pako Iriondo Euskal Mendi-

zale Federakundeko lehendakariak hitz egingo du. Lore Gazteak dantza taldeak aurrakua eta Goikobaluk kantaldia eskainiko dute. Bertsolariek ere bertso saioa eskainiko dute, nola ez.

■ LORE JOKOAK ARAMAION

- 11:00 bertsolarien ibilaldia, Aramaioko parajeak ezagutuz.
- 14:00 bertsolarien bazkaria eta agurra.

# 20 astelehena

■ ZINEA

*Star Wars I*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:45ean.

■ ALZHEIMER EGUNA

Irailaren 21ean ospatuko da Nazioartean Alzheimer gaitasunaren eguna. Hori dela eta, AFAGIk—Gipuzkoako gaixoen familiartekoen elkar-tea— hitzaldia antolatu du Arrasaten. Saioa Monterroren izango da, 19:00etan.

# 21 asteartea

■ ZINEA

*Star Wars I*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:45ean.



■ **PERTSONAREN GARAPENA**

Hamabi saio eskainiko ditu Pepa Bojok, Udaleko Emakume Sailak antolatua. Saioak 16:30etik 18:30era izango dira.

■ **GRIPEAREN AURKA**

65 urtetik gorakoentzat edo bihotzeko, biriketako edo giltzurrunetako gaixoentzat da. Anbulatoria joan (egunero 09:00etatik 15:00etara) edo auzo bakoitzeko alkatetzara: irailaren 22an San Andre-sen, irailaren 23an Abaro-an, irailaren 28an Uribarrin, irailaren 29an Santamainan eta irailaren 30ean Musakolan, 12:00-12:30.

■ **GAZTE BULEGOA**

Gazte Bulegoak ordutegia aldatu du. Astelehentik ostiralera 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara izango da zabalik. Ostegunetan, ordutegia 16:00-18:00.

■ **TRIKITIXA ESKOLA**

Arrasateko Trikitixa Eskolak dagoeneko ireki du datorren ikasturterako izenak emateko epea: irailaren 20tik 23ra. Saioak urriaren 4an hasiko dira. Gogoratu izena ematen ez duten ikasleak utzi egingo dutela eskola.

■ **BEGIRALE IKASTAROA**

Txatxilipurdik begirale ikastaroa antolatu du. Urriaren 8an itxiko da izen ematea. Interesatuak gutxienez 18 urte izan beharko dute. Argibideak, 943 79 54 46 edo 943 77 17 39 zenbakietan.

■ **OPORRETAKO LEHIAKETA**

Oñatiko Gaztelekuak hainbat lehiaketa antolatu ditu opor kontuak aitzakia-tzat harturik. Bidaiaren kontaketa egitea eskatzen da, kontakizun gisa, literatura errelato eran edo argazki bidez. Argibideak, 943 71 60 94 zenbakian.

■ **JESUSI ETXEBARRIA MUSIKA ESKOLA**

Irailaren 30a arte izango du zabalik Jesusi Etxebarria Musika Eskolak matrikulazio epea. Izena emateko, astegunetan 17:00etatik 20:00etara akademian bertan edo telefono honetara deitu: 943 79 17 67 (21:30etik aurrera).

■ **ZERAMIKA IKASTAROA**

Leintz Zeramika Eskolak ere irailaren 30a arte izango du izena emateko epea. Irakaslea Jabier Mercader izango da eta saioak urriaren 4an hasiko dira. Argibideak, 943 79 30 00 zenbakian (Andoni Loiti).

■ **IGERILEKUAK**

Eguraldiaren aldaketa dela eta, kanpoko igerilekuak asteazkenean itxi zituzten eta barrukoak ireki. Astelehentik ostiralera goizez zein arratsaldez egongo da zabalik. Larunbat eta igandean, berriz, 09:00etatik 13:30era.

■ **DANTZA IKASTAROA**

Areto dantzak, dantza latinoak eta bestelakoak ikasteko aukera eskaintzen dute Nataliok eta Estherrek. Dantza ikastaroa irailaren 20an hasiko da, 20:30ean. egun horretan bilera egingo da San Viatorreko gimnasioan. Argibide gehiago hantxe emango da.

■ **OMENALDIAN ON JOSE MARIARI**

Irailaren 24an, ostiralean, omenaldia egingo zaio hilerri berrian On Jose Maria Arizmendiari, 17:00etan.

■ **ELKARTASUN MARATOIA**

Irailaren 25ean, larunbatean, aerobic maratokia egingo da Bergarako udal pilotalekuan. Helburua, Raul Luke gaztearen alde dirua jasotzea. Raulek istripu larria izan zuen Bergarako jaietan eta harrezkero Aita Menni ospitalean dago. Hori dela eta, elkartasun maratokia antolatu dute familiaren gastuei aurre egiten laguntzeko. Izen ematea eta sarrera 1.000 pta kostako da.

# 23 osteguna

■ **ZINEA**

*Star Wars I*, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:45ean.

■ **NOLA ZAHARTU**

Pepa Bojok hamabi eguneko ikastaro bat zuzenduko du, nola zahartu irakasteko. Udaleko Emakume Sailak antolatua. 16:30etik 18:30era.



## ESKER ONA

1999ko irailaren 6an hil zen

### Eugeni Zabaleta Mendikute

Seme-alabek bihotzez eskertzen dute jasotako doluminak eta hileta elizkizunetara agertu izana.

# Arrasate

## LANAK

### ZALDISPE

Zaldispeko oinezkoen pasabidea egiteko lanak.

### ANTOÑA


Institutu ostetik Antoñatik gora egiten ari diren bideko lanak.

### OBENERREKAN

Gernika kaleko oinezko pasabidea berritzeko lanak.

### OTALORA

Udal pilotalekua egiteko lanak.



**Biztanleak: 24.257**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**

## Eguraldiaren aurreikuspena




**OSTIRALA 17**

Lainoak izango dira nagusi lehen orduetan. Tenperaturak behera egingo du.



**LARUNBATA 18**

Lainoak izango ditugu goian, baina ez dute euririk ekarriko. Haizeak hegomendebaldek joko du.



**IGANDEA 19**

Oso lainotua esnatuko da eguna eta euri zaparradak ere egingo ditu. Haizea zakarragoa ibiliko da egun osoan.

## Ilargia



**Ilgora**

Irailaren 17an, ostiralean, ilgora izango dugu.

## Mezak

### Parrokia

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

### Igandean:

09:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz).  
12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

### Igandean:

09:00 (euskaraz)  
10:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz).  
12:30 (erdaraz)  
19:00 (elebiduna)

### Uribarri

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

### Igandean:

11:30 (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

### San Andres

**Ostiralean**  
18:30 (Otoitz ordua)

### Larunbatean

18:30 (Bezpera abestiak)  
19:00 (elebiduna)

### Igandean

10:00 (erdaraz)  
11:00 (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

### Santa Teresa


**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

### Igandean

10:30 (erdaraz)  
11:30 eta San Isidron (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

**Urkuluko uraren maila**

**%70,9**



## Urteurrena

Orain dela urtebete Arrasate Pressen:

- Ezker Sindikalak eta kooperatibetako Lankideak taldeak Euskadiko Kutxak lau urte lehenago egin-dako azpikontrazioak salatu zituzten.
- ARKOK EAEko udal euskalategien kanpaina aurkeztu zuen.
- Jon Anduezen *Bernar* film laburrak Elxeko Nazioarteko Bideo eta Zine lehiaketa irabazi zuen.

Iturria: Metereologia Institutua.

# Jesus Mari Sarazibar / Brasilgo bizimoduaz gozatzen

**Jesus Mari Sarazibarrek zazpi urte darama Brasilen bizitzen. Zapata saltzailea da eta orain oporretan etorri bada ere, hara itzuli behar da berriro. Bizimodua egina dauka, eta pozik dagoela dio.**

**- Zer dela eta joan zinen?**

- Emaztea hangoa da eta ez zituen oso ondo eramaten hemengo hotzak. Brasil gogoan zuen eta egoera ondo aztertu ostean, hara joatea erabaki genuen.

Barrualdean hasi nintzen lanean, eta orain, Rion bertan nago, zapatak saltzen.

**- Gustuko duzu hango bizimodua?**

- Oso. Han, oraindik, edonorentzat daude aukerak. Hain da handia, hangoek ere ez baitute ezagutzen dagoen gutzia. Pentsa, tamainaz, Europa baino handiagoa da eta 165 milioi biztanle besterik ez ditu. Zera gertatzen da, jende gehiena hiri handietan bizi dela, pilatuta.

Bestalde, aberastasun ugari ditu, meak kasu. Begira, adibidez, Uruguai urre esportatzaile handiena da eta ez du meatzik; nondik ateratzen du urrea...? Amazonas aldea ere hor dago...

**- Eta hango jendea?**

- Jatorra da, oso zabala,

baina iruzur egiten dizute ahal izanez gero. Kontua da jendearen arteko desberdintasunak izugarriak direla, oso-oso abertsak edo oso-oso txiroak dira, *fabelak*, drogak... Poliziak ezer gutxi egin dezake, gainera.

Hala ere, egoera hau batez ere hirietan ikusten da. Barrualdean askoz ere lasaiago bizi gara.

**- Herriminik bai?**

- Noski. Hura oso beselakoa da. Ez dago ardorik, adibidez, ezin zara kalean gaueko ordu txikietan ibili, edonoz pistola batekin mehatxa zaitzakete... Baina ohitu egiten zara, nahiko erraz, gainera. Dena dela, ni moldaeraza naiz eta edo zertara jartzen naiz.

**- Brasilen futbola handia da, ezta?**

- Futbolarengatik lan egiteari uzten diote, berdin da gainera zein ordu den. Batez ere selekzioak mugitzen du jendea.

Honetaz gain, dakizuen moduan, handik oso futbolari onak irten dira eta irteetan jarraituko dute. Hori dela eta, ez zaie asko inporta gehienak handik kanpora badoaz. Berehala aterako baitira gehiago.

Ni, egia esan, ez naiz askotan joaten ikustera. Oso



Jesus Mari Sarazibar musakolarra.

arriskutsua da. Zaleen arteko liskarrak gehienetan tiroka amaitzen dira.

**- Arrasate aldatu egin da zu kanpoan izan zaren artean. Zer diozu?**

- Herria nahikotxo aldatu da, bai. Nire ustez, hoberrako, gainera. Gustatzen zait.

**- Emango al zenieke gomendiorik arrasatearrei?**

- Hemendik irten eta leku berriak ezagutzeko. Bra-

sil horretarako ikaragarria da. Izugarri handia. Denetik dago, era guztietako jendea eta, noski, ondorioz, kultura askotarikoa.

Bizimodu zeharo desberdinak daude han. Hegoaldean, adibidez, alemanen eta italiarren ondorengoak bizi dira, bi kultura horiek nagusitzen direlarik. Iparraldean, berriz, frantsesen eta holandarren ondorengoak. Rio de Janeirotik gora, bestalde, %80 beltzak dira.

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 943 79 87 62

**PUB HAIZEA**



**“PAL”**

**burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria**

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE



## FEDEA INDARTSU

Goizeko 06:30ean 200 bat erromes irten ziren joan den igandean Arrasatetik Arantzazura oinez

joateko. Ohiturak agintzen duen moduan, Gesaltzan autobusez edo automobileren joandakoekin elkartu

ziren eta azken kilometroak batera egin zituzten. Iaz baino eguraldi hobea izan zuten.

## LORE JOKOAK GIROTUZ

Lore Jokoen mendeurrenaren barruan, Txistularien Eguna ospatu zen larunbatean Aramaion. Aguraingo, Araiako, Gasteizko eta, noski, Aramaioko hainbat txistulari talde bildu ziren. Ederki girotu zuten eguna.



## LUXUZKO BERTSOLARIAK

Uribarri-Erguingo auzokideak jairik-jai ibili dira asteburuan. Ospe handiko bi bertsolariren ekitaldia izan zuten, Jon Azpillaga eta Joxe Agirrere-na, hain zuten. Saio bitxia bezain bikaina, bi hauek ez baitira plaza askotara joaten eta.

**TOKION**  
ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN SALMENTA  
Erdiko Kale, 7  
Tel.: 943 79 91 64 • ARRASATE

### TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu jostekak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a  
Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

### OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

### JUBAR ATEAK. S.L.®

- BURDINAZKO ATEAK
- ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17

## APAIZA, ARTISTA ETA ARRASATEARRA

Arrasaten dagoenean behintzat, ahal duen guztietan joaten da Julian Sagasta *Olatxo* parrokiara, organoa jotzera. Pozik bai pozik aritzen da koro berrian. Joan den ostiralean berak esan zuen bere kintoen meza.



## ZALETASUNA BAINO GEHIAGO DENEAN...

Abuztuaren 18an *Bonbaren* urtebetetzea zela eta, Iraia, Iker eta Iñaki arrasatearrak Zubietaraino joan zitzaizkion

zoriontzera. Denbora dexente itxaron behar izan arren, pozik geratu ziren. Gure partetik ere, zorionak, Aitor!



## ESKOLAN GAUDE!

Honelakoxe itxura erakusten zuten haurtxoek eskolaren aurreneko egunean. Bat edo beste negarrez aritu zen, noski, baina gehienak lasai asko joan ziren. Betiko moduan, askotan gurasoak izaten dira gehien larritzen direnak, ezta?



Maritxu Kajoi egunerako  
makilatu eta orraztu

**3.000** ptatik aurrera

**ZATOZ!** gure  
ezustekoa ikustera

Maalako Errabala, 21-B  
ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

ARAOTZ Merenderua

Ingurune zoragarrian,  
lagun artean  
ondo pasatzeko aukera

Araotz auzoa, 2 • OÑATI  
Tel.: 943 78 35 26



ARAOTZ Merenderua  
OÑATI

**BERGARA**


**1** San Martin krossa

Larunbatean jokatuko da San Martin eguneko krossa. Iluntzeko 19:30ean aterako da herriko plazatik. Hiru maila izango ditu. 14 urte artekoek 1.700 metroko lasterketa egin beharko dute. Bigarren taldeak, 15-17 urtekoenak, berriz, 3.000 metro egin beharko ditu eta azkenik, 18 urtetik gorakoek, 9.000 metro. Ohiko sariez gain, lehenengo 50ek elastiko bana jasoko dute opari moduan.

**OÑATI**

**2** Herria irudietan

Oñatiko Turismo Bulegoak herriko irudiak dituzten elastikoak eta eranskailuak atera ditu. Modu honetan, Oñatiren izena eta izana ezagunagoak egin nahi dituzte. Elastikoetan herriaren adierazgarria den



txantxiku baten marrazkia jarri da. eranskailuetan, berriz, herrian dauden monumentuak eta Oñatiren armarrria agertzen dira. Elastikoak 800 pezetatan eros daitezke eta eranskailuak, ostera, 50-75 pezetatan.

**ARETXABALETAKO**

**3** Batzorde iritzi emaileak

Aretxabaletako Udaleko batzorde iritzi emaileak eratu dira dagoeneko. Bederatzi dira guztira. Horietatik bost EHren ardurapean geratu dira: Kultura, Ingurumena, Ongizatea, Euskara eta Hezkuntza eta Hirigintza, Lanak eta Zerbitzua. Beste laurak, EAJ-EA koalizioaren esku: Kirola, Auzoak, Garapen Ekonomikoa eta Herri Finantzak.

Hirigintza izan ezik, batzorde hauek hamabostean behin bilduko dira. Hirigintzakoa, ordea, astero.

**HIZKUNTZEN MUNDUA**



**Matrikula Epea Zabalik**

- ▶ **Hizkuntza eta maila guztiak.**
- ▶ **Ordutegi malguak.**
- ▶ **Mediateka zure esku dohainik.**
- ▶ **Haur, gazte eta helduentzat.**
- ▶ **Multimedia sistemak.**

**Informa zaitez orain !**



**AHIZKE S. COOP**  
 Avda. de Alava, 4 - 20500 ARRASATE (GIPIZKOA)  
 Tel.: 943 71 20 55 Faxa: 943 71 21 81  
 E-mail: secretaria@cim-idiomas.com  
 http://www.cim-idiomas.com  
**Olakua, 14 - 20560 OÑATI (GIPIZKOA)**  
 Tel.: 943 71 60 00

**Florida, 8A - 01005 VITORIA-GASTEIZ (ARABA)**  
 Tel.: 945 15 01 55 Faxa: 945 15 01 56  
 E-mail: gasteizbaibay@cim-idiomas.com  
**Zubieta, 26 - 20007 DONOSTIA (GIPIZKOA)**  
 Tel.: 639 71 98 58  
 E-mail: secretaria@cim-idiomas.com  
 http://www.cim-idiomas.com



astea bi hitzetan

■ **Zirkulazio istripuak saihesteko**

Zirkulazio istripuei aurrea hartzeko "La Esencia del Tango" antzezlan eskaini zen pasa den ostegunean Aita Menni eritetxean. Lan honen bidez Trafiko Zuzendaritzak trafiko eta ibilbideen inguruko heziketa bultzatu nahi izan du. Aita Menni ospitalak sentiberatasun berezia du bide segurtasunarekin zerikusia duten gaiekin, izan ere, zirkulazio istripuek eragin dituzte ospitalean dauden gaixoen burmuineko lesio gehienak.

■ **Etokizuna euskaraz**

EAEko udal euskaltegiek ikasturte berriaren kanpai-

na aurkeztu zuten pasa den ostiralean Bilbon. Aurreko urteetan bezala, Arkoren publizitate sailak antolatutako udal euskaltegien kanpaina. Hantxe izan ziren gure publizistak makina bat komunikabide eta pertsona ezagunen artean. Kanpainaren leloa "Zure etorkizuna euskaraz" da. EAEko udal euskaltegiek euskaltegi guztien ikaslegoaren %28a batu zuten iaz, 10.738 ikaslerekin.

■ **Euri zaparradak**

Igande gauean eta astelehenean abuztu osoan baino euri gehiago egin zuen. Izan ere, abuztuaren 6an 16 litro jausi ziren. Joan den igandean, berriz, 10 litro egin

zituena eta astelehenean, 12, San Prudentzian Arrasaten. Oraingo honetan inor gutxi kexatu da euria hasi denean. Premia gorria!

■ **Eibar-Gasteiz esleitua**

Eibar-Gasteiz autobidearen Arrasateko zatia idazteko proiektua, Fulcrum enpresari eman zaio. Arrasateko Bergarako hegoalderainoko zatia idazteko laguntza teknikoa emango du Fulcrum enpresak. Lan horren truke, 107.300.000 pezeta jasoko ditu. Halaxe jakinarazi zen asteleheneko Gobernu Batzordean. Gipuzkoako Foru Aldundiak adjudikatu ditu lanok. Lanak hasteko epea ezartzea falta da.



Dagoeneko bi promozio ditugu lehen zikloa bukatu dutenak eta beste bat bigarrena amaitu duena. Ikasle gehienek enpresetan egin ohi dute —urtebetez— unibertsitate ikasketak amaitzeko azken lana. Horregatik gure ikasle gehienek lana izaten dute ikasketak bukatu orduko. Hori gertatzen ez denean, sei hilabete baino lehen izaten dute non lan egin".

**JAVIER MENDILUZE**

Gara  
1999.8.17



■ **Agerre plaza itxuratzen**

Agerre plazan lanean dihardute oraindik. Biribila konpondu ostean, lurra asfaltatzen aritu dira aste honetan. Lanak bukatzeko baranda jartzea falta da. Irailaren amaieran ipintzeko dira. Urrian, berriz, lorak landatuko dituzte biribileko eta plazako lorategietan.

**Zeri ari zara itxaroten?**

**EGIN ZURE MATRIKULA**



Garibai, 6 - B ARRASATE Tel.: 943 - 77 11 06

**ESKOLA PARTIKULARRAK**

- OHO • EII • BBB • LH • BT • UBI

**INGENIARITZA**

- Matematika I • Kalkulua II
- Fisika I eta II
- Termodinamika • Informatika I

**GAZTELANIA**

**ATZERRITARRENTZAT**

**HIZKUNTZA**

**IKASTAROAK ATZERRIAN**

(King's College)

**MEKANOGRAFIA**

- Ordenadore bidez

**INFORMATIKA**

**OFIMATIKA**

- Testu prozesatzailea
- Datu Baseak
- Kalkulu orriak

**PROGRAMAZIOA**

- Qbasic • Turbo Pascal
- Turbo C • Dbase • Cobol...

**INTERNET**

- Nabigatzea • Web orriak
- Posta elektronikoa

*Helbide berria!*




**AZKARATE MORRAS**

**PODOLOGIA KLINIKA**

- Oin arazoak
- Haur podologia
- Kirol podologia
- Biomekanika arazoak
- Gari eta onddo tratamenduak
- Plantila zuzentzaileak eta silikona ortesiak
- Kiropodiak (gogortasunak, azazkalak, maskurrak)

**ORDUA ALDEZ AURRETIK**  
Munar, 10 ARRASATE Tel.: 943 79 53 63

# Ikasturtea



MATRIKULA ZABALIK

- Oinarrizko Ofimatika
- Office '97 Inguruan
- Diseinu eta Komunikazio Grafikoa
- Fotokonpozizioa: Adobe Photoshop
- Komunikazio eta sare lokalak: Windows NT
- Programazio Informatikoa
- Kontabilitate eta Komertzial Gestio mekanizatua
- Zerga Gestioa PYMES-etan
- Giza Baliabideen Administrazioa
- Mekanografia ordenagailuz
- Laguntza klaseak
- Planoen Interpretazioa
- Kalitatearen Gestioa
- Internet
- Administrazio Laguntzailea

## BERRIAK

- Hizkuntzak (multimediaz)
- Musika Informatika bidez (Midi Sistema)
- Ekipo Informatikoen mantenu eta konpontzea

Larunbat goizetan eskolak emateko aukera

LANGAI-Euskal Lan Zerbitzura Atxikia

AKADEMIA

# BASTIDA

INEM-8X HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorbidea, 3 - 1<sup>a</sup>  
20500 Arrasate-Mondragón  
Tel.: 943 79 35 33  
Fax: 943 79 06 28  
E-mail: bastida@tsai.es

# Gripearen aurkako txertoak

Gripearen aurka txertatzeko kanpaina irekita dago asteazkena ezkerro.

65 urtetik gorakoei edo gaixotasun jakin batzuk dituztenenei dago zuzenduta: bihotzeko, biriketako edo giltzurruneko gaixotasunen bat edo diabetesa dutenei, hain zuzen ere. Izan ere, pertsona nagusiak eta aipatutako gaixotasunak dituztenak dira gripearen ondorioak gogorren jasaten dituztenak.

### HAINBAT LEKU

Kanpainak irailaren 30a arte iraungo du. Tarte horretan, nahi duenak anbulatoriora jo

## Txertatzea, auzoz auzo

- Irailak 22, San Andreseko alkatetzan.
- Irailak 23, Abaroan.
- Irailak 28, Uribarriko alkatetzan.
- Irailak 29, Santamainako alkatetzan.
- Irailak 30, Musakolako alkatetzan.

Egun hauetan, eguerdiko 12:00etatik 12:30eara.

dezake txertoa hartzeko, astelehenetik ostiralera bitartean.

Dena dela, eta joan ezin dutenei gauzak errazte aldera, auzoetan eta Abaroan ere jarriko dituzte txertoak.

Anbulatoriora joaten dire-

nek aurretik txanda hartu beharko dute, itxaroterik ez badute nahi behintzat.


Kanpaina hau urterokoa da. Osakidetzak Euskal Autonomia Erkidego guztira ireki ohi duena.

# Iturriak gordetzen

Iturri gehienak desagerturik edo desagertzeaz duden garai honetan, Arrasatek beste bi iturri ditu. Batek, Besaiden dagoen iturria berritzen aritu dira aste honetan. Iturriaren hodiak puskatuta zeuden, gainerik kamioiak, autoak eta bestelako ibilgailuak pasatzen zirelako.

Bestetik, Kobateko harrobiaren parean iturri berri bat jarri du udalak. Uztailaz geroztik mendizaleei ura ematen aritu da.

Badirudi mendira joaten zirenek ez zutela uririk non edan. Asko eta asko ziren harrobiko txabolara



Kobateko iturria.

ur eske gerturatzen zirenak. Hori ikusita, norbaitek itu-

rri bat egitea eskatu zuen eta udalak ipini.

# GANBARA

Enmarkazioak    Arte ederretako materiala  
Laminak            Arte lanak (margo lanak)

Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37 • 20500 ARRASATE

## JOSLE MERTZERIA

MARITXUtarako oihalak eta joskintza  
Jantzi konponketak

Merkatu plaza 8. saltokia.  
Tel: 943 77 07 83



# Kanpaiek ixilago jo beharko dute

San Joan Parrokiako kanpaien hots maila jaitsi egin beharko da. Hori egiten ez den bitartean, maiatzaren 31n egindako eskakizunak indarrean segituko du. Honen arabera, erlojuaren kanpaiek ez dute ordurik emango gaueko 22:00etatik goizeko 08:00ak bitartean.

Halaxe erabaki zuen Gobernu Batzordeak asteleheneko bileran. Erabaki honekin, udalak erantzuna eman die San Joan Bataiatzailea parrokiako kanpaien aurka jarritako salaketei.

## PARROKOA HASERRE

On Jose Maria Astigarraga parrokoa, berriz, ez dago bate-re pozik erabaki honekin. Haren esanetan, "kanpai hauek 500 urte daramate ordua ematen, baita gauean ere. Honetaz gain, erlojuko kanpaiak beharrezkoak dira jende askorentzat, batez ere pertsona nagusientzat, ez baitute baterre erraz ikusten erlojua eta kanpaien hotsak erabiliz dakite ordua. Hauetako askok, gai-



Parrokiako kanpaiek, hots handia.

nera, gaua esna pasatzen dute. Kanpandorrea konpontzen ibili ziren bitartean, kanpaiek ez zuten jo eta jende mordo

etorri zitzaizkan kanpaiez galdezka".

Dena dela, udalaren eskaera aztertuko duela adierazi du.

## MUK ikasle gehiago du

Mondragon Unibertsitateak inoiz izan duen ikasle kopururik handiena izango du datorren ikasturtean. Izan ere, aurreko ikasturtearekin alderatuz gero, %25 igo da matrikulazio kopurua. Hala ere, oraindik eta hilaren amaierara arte irekita egongo da matrikulazio epea, beraz, baliteke hazkunde handiagoa izatea.

Duela bi urte jarri zen abian Mondragon Unibertsitatea eta hiru fakultate ditu orain: Goi Mailako Eskola Politeknikoa Arrasaten, Enpresa Zientzietako Fakultatea Oñatin eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako Fakultatea Eskoriatzan. Matrikulazioa, hiru fakultateetan igo da. Baina batez ere Eskoriatzako fakultatean.

Zortzi-hamar urte barru 4.000-5.000 ikasle izango ditu, egiten ari diren azterketen arabera. Unibertsitateko ardura-dunek ez lukete hori baino ikasle gehiago nahi.

## Presoen eskubideen aldeko lan etenaldia

Arrasateko Udala geldiegon da gaur eguerdiko 12:00etatik 12:10ak arte. Gipuzkoako Foru Aldundiak eginiko deiari jarraituz, euskal presoen eskubideak aldarrikatu dituzte modu honetan.

Udaletxeko zinegotziez gain, beste makina bat pertsona ere gerturatu da herriko plazara. Izan ere, udalak herritar guztiei zabaldu zien deia eta herriko enpresa batzordeek gauza bera egin zuten.

Xabier Zubizarreta alkaterearen esanetan, gainera, Euskal Herriko erakundeek era honetako ekimen gehiago bultzatuko dituzte hemendik aurrera.

Honetaz gain, bihar goizeko 11:00etan Udalerriren Biltzarra bigarren aldiz bilduko da. Euskalduna Jauregian izango da bilera eta Euskal Herriko udaletxeetako zinegotzi guztiak daude deituta.

Arrasateko gehienak ere hantxe izango dira.

## Eroskik aldizkari berria dauka

Eroskik aldizkari berri bat sortu du, barne komunikaziorako. *Nexo* izena du eta langileen artean bakarrik banatuko da. Hilero 12.000 ale argitaratuko dira.

Edukiei dagokienez, batez ere langileei interesatzen zaizkien gaiak jorratzen ditu. Dena dela, eta *Nexo* aldizkariako erredaktore buruak, Olatz Urretxagak, adierazi duen bezala, "aldizkari entretenigarria egin nahi izan dugu. Hori dela eta, aisialdirako gaiak ere landu ditugu".

Lehen alea irailaren lehenean argitaratu zuen.

Koloretan egin dago, argazki askorekin. Eroskik Espainian zehar dituen dena guztietan banatuko da. Gehiena gaztelaniaz idatzita dago.



# Elgeako zentrala, eztab

Badator Euskal Autonomia Erkidegoko lehen haize bidezko zentrala. "Elgeako Mendilerroa" izena jarri diote, izan ere, Araba eta Gipuzkoaren artean kokatuko da. Barrundia eta San Millan (Araba) eta Oñati, Eskoriatza eta Aretxabaleta-ko udalerrien lurretan, osotasunean Elgea izena hartu duen eremuan.

ka-mika da nagusi gai honen inguruan. Energia iturri honen ezarpenaren izaera ekologikoa eta ezarpena bera da zalantzan jarri dena. Hainbat salaketa izan dira talde ekologisten, mendi taldeen eta abeltzainen alde-tik. Baina salaketek legearen bide geldoa egiten duten bitartean, Elgeako lanak aurrera doaz.

Erreportaje honen bidez zentralaren inguruan dabil-tzan taldeen ikuspuntuak azal-du nahi ditugu. Eolicas de

Euskadi enpresarekin izan gara eta baita salaketak jarri dituzten ekologista eta abeltzainekin ere.

## ENERGIA EKOLOGIKOA

Ekologistek argi eta garbi utzi nahi izan dute energia berriztagarrien aldekoak direla. Energia eolikoa ere oso begi onez ikusten dute. Baina ez "gaude ados ezarri nahi duten ereduarekin".

"Euren iritzi (Eolicas eta-barren iritzi)", diote ekolo-gistek, "energia eolikoa erren-

## Bederatzi hilabete barru, zentrala eginda egotea espero du Eolicas de Euskadi enpresak

tagarria da baldintza jakin batzuk betez gero: aerosorgailuak 800 metrotik gora egotea, leku haizetsuak izatea... Horren arabera, EAEn baldintza horiek betetzen dituzten leku bakarrak dira ia ikutu barik daudenak, Elgea, adibidez. Gure ustez, paraje horrek balio izugarria du, izadiarekin lotuta eta paisajeari dagokionez, ahaztu barik ondare arkeologikoa eta aztertu bariko tokiak. Hala ere, ez diote inolako babesik eman. Mugarriluzeko monolittoa margoztuta azaldu zen lanak hasi eta berehala; mugitu dituzten lurra ez dituzte kendu, legeak agindu moduan eta abar, eta abar."

## LUZAMENDUA


"Uste dugu, bestalde", segitzen dute, "aukera teknologiko gehiago ere badagoela. Teknologia landuagoa edo aurreratuagoa dauden beste lurralde batzuetan haize gutxiagorekin energia kopuru berdina lortzen duten aerosorgailuak erabiltzen dituzte. Hemen horrela balitz, ez litzateke beharrezkoa izango orain-

## ELGEAKO ZENTRALAREN EZALUA

- 1995. urtean Eusko Jaurlaritzak eman zuen. Aldez aurretik Euskal Autonomia Erkidegoan.
- Energiaren Euskal Erakundearen bidez Euskadi SA sortu zuten. Eusko Jaurlaritzaren proiektua da.
- 4.000 milioi pezetako inbentarioa.
- Beharrezko baimen guztiak onartu ziren lanak egiten. Bederatzi hilabete barru.
- Zentralaren eremua 4.100 metro karratuko albu bakoitzetik, 25 metroko espaziora, zentralak 20 hektareara mugatuko da.
- 40 aerosorgailu izango dituzte, bakoitza 20 metro inguruko garai, 20 metro inguruko diametroa.
- 100.000 inguru pertsona bakoitzeko pareko energia lortzea espero da. Energia lortzea espero da 400.000 pertsona bakoitzeko airera, urtero.
- Materialea igotzeko ez da beharrezko herritik gora doana hobetua.
- Izadiaren ondarea eta arkeologikoa babesteko, arkeologiek txostenak idazteko beharrezkoa da.
- Hegaztiei eragin dakiekeen eremua kontrola egingo da.
- Haize parkearen onarpena lortzeko da iritzi publikoari.

Informazio iturria: Euskal Energiaren Erakundea (Azaleko argazkia, argazki muntatua)

## 100.000 inguru pertsona bakoitzeko pareko energia lortzea espero da



Lanak hasi eta berehala margoztuta agertu zen Mugarriluzeko harria.

# bidaren bihotzean

AURTIAK

urrago Industria Batzordeak baimena  
rik hain neurtzen aritu ziren Euskal Auto-

undien (EVE) eta Iberdrolak Eolicas de  
n. Ekoa enpresa honek bultzatutako

inbisa behar du.

riak ostean, ekainaren amaieran hasi  
erabete irautea espero dute.

.00 no luze izango da. Aerosorgailuek,  
trokarru bat izango dute. Beraz, oro-  
reari beteko ditu Elgeako parajea.

dituzte zentralak, bakoitza 40 metro-  
urukin.

onalean egiten duten kontsumoaren  
espeia. Modu honetan, negutegi efek-  
0.00na CO<sub>2</sub> gutxiago isuriko lirateke

da berririk egingo. Arabako Larrea  
betua.

arkelari dagokiona zaintzeko, biologo-  
sterizango dute alde aurretik egina.

keelari buruzko jarraipen eta kon-

nalitzeko azterketa soziologikoa egin-

erjandea eta Eolicas de Euskadi enpresa.

sonak etxean egiten  
no pareko energia



Ekologistek diotenez, putzu hau lanak hasi ostean seinalizatu zuten.

dik ikutu barik dauden leku  
pribilegiatu eskas hauetan  
kokatzea zentralak”.

“Horregatik, luzemendua  
eskatzen dugu nagusiki.  
Hemen ere teknika landuagoa  
izan arte eta gizartean ezta-  
baidatu arte. Era berean, Plan  
Eolikoa egin aurretik (EAEn  
behar den energiari buruz egin  
den azterketa) ez litzateke hai-  
ze zentralik eraiki behar. Logi-  
koena izango litzateke behar-  
rak ezarri ostean egitea. Elge-  
ari, berriz, lehentasun berezia  
eman diote. Izugarritzko pre-  
sa ikusten dugu Elgea eraiki-  
tzeko. Uste dugu, Elgeak eko-  
logiarekin barik diruarekin eta  
negozioarekin batez ere due-  
la zerikusia”.

Jakinarazi digutenez,  
proiektu osoaren aurka egin  
dute, Gipuzkoako Mendi  
Federazioaren izenean. “Gure  
ustez eta abokatuen iritziz,  
proiektua ingurumena babes-  
teko irizpideen aurka doa.

Adibidez, bi hilabete dira lanak  
hasita daudela, lur ugari mugit-  
tu dute eta legearen arabera,  
lur horiek leku jakin batean  
pilatu behar dira. Hara joanez  
gero, ikusiko duzu oraindik ere  
han daudela. Inpugnazioa era-  
baki bitartean lanak geratzea  
eskatu dugu, baina aurrera  
doaz eta legea oso motela  
denez...”

## EZARPENA

Informazio falta, ezkutukeria  
eta tratu eskasa. Horixe da, bes-  
talde, zentralaren inguruan  
entzuten dena. Ekologisten  
ustez, ez da inongo argibide-  
rik eman, herritarroei ez zaigu  
inolako galderarik egin. Ezta-  
baida sortu ez baizik eta kon-  
trakoa egin izana salatzen  
dute. Hau da, informazioa  
ezkututzea eta gaizki edo modu  
interesatuan erabiltzea...

Abeltzainek dute, baina,  
hemen zeresanik handiena.  
Esan dutenez, oso tratu txarra

jaso omen dute hasiera-hasie-  
ratik. Egunkariaren bidez jakin  
zuten proiektuaren berri orain  
hiru urte, alegazioak egiteko  
bi egun falta zirenean. Luza-  
mendua eskatu zuten orduan,  
baina ez zieten jaramonik egin.  
Ordutik hona informazioa  
zabaltzeko modu berarekin  
jarraitu omen du Industria Sai-  
lak. Baserritarren esanetan,  
behar baino informazio askoz  
ere gutxiago eman diete.

Haserre daude Eusko Jaur-  
laritzako Industria Sailarekin  
auzi honetan jaso duten tra-  
tuarengatik. Hauek dira abel-  
tzainen arrazoiak:

- Diru publikoa erabiliz,  
Industria Sailak enpresa pri-  
batu bati eman dizkio lanak  
egiteko erraztasun guztiak,  
abeltzainon eskaera eta ale-  
gazio guztiei muzin eginez.

- Eolicasek ez ditu bete  
egindako eskaintzak (lanen  
jarraipenerako batzordean par-  
te hartzea, proiektuari buruz-

ko informazio gardena eta bidezko ordainak lurjabeentzat).

- Informazioa eman behar-ko ligukeen enpresaren jarra-lotsagarria. Ez dira gai eskatutako informazioa emateko eta horren aurrean baserritarrok inolako babesik gabe gaude beste behin.

- Zentralaren zati handiena Araban dagoela diote eta ez da egia, Gipuzkoako lurretan dago.

- Onartezina da eraikitze-ko lurak lorzeko orduan, guri eskaintzen digutena; baina onartu ezean, lurak kendu egiten dizkigute. Hori ez da inon egin. Hor ikusten da helburu baten atzetik dabilzala: EAeko lehenengo zentrala eredu hartzea ondorengoak egiteko. Modu honetan, etorkizunean egin litezkeen zentraletan ere lurak desjabetzeko

aukera izango lukete.

- Tokian tokiko udalek eta erakundeek izan beharko lukete zentralaren kontrola, ustiapena eta parte hartzeko aukera, EBN bultzatzen den moduan. Noski, kasu horretan galtzaila bakarria Iberdrola litzateke.


### LANAK GELDITZEA

Hauxe da baserritarren eskaera nagusia. Behintzat eurenkin dituzten harremanak aldatu arte. "Leku hau izugarri maite dugu eta bidezko ordain bat lortu ezean, ez dugu zentralik jartzerik nahi".

Baserritarrek, bestalde, jakitera eman dituzte han lanean dabilzanez egindako bidegabekeriak. Adibidez, orain arte burututako lanek proiektuak ezarritako mugak gainditu izana, proiektuan agertzen ez diren sarbide ugari ireki baitira Larreako urtegitik Oñati-



Abeltzainen esanetan, espraiak lurretan botata azaldu dira Elgean.



Leitzako zentralaren antzeko itxura izango du Elgeakoak.

ko Usabakotxenaraino eta hortik, mendi tontorretik, Aretxabaletako Amuategi putzura ino.

Abuztuaren 18an, bestalde, ikusi zuten nola bulldozer batek erabilitako olioia zuzenean lurrera bota zuen Larreako urtegitik gertu, Ingurumenaren txostenak dioenaren kontra, hain zuzen ere.

### ESKORIATZAKO UDALA

Bukatzeko, Eskoriatzako Udala ere aipatu beharko genuke. Kasu berezia baita. Eolicas de Euskadik baimen guztiak dituela esan arren, Eskoriatzako Udalak ez dio eraikitzeo baimenik eman.

Josu Azkarate Cañamaquerekin izan gara hizketan. Eskoriatzako udaletxeko zinegotzia da. Haren esanetan, udalerrri honetako arau subsidi-

diarioek ez dute uzten Elgean ezer eraikitzen. Beraz, arauak aldatzen ez diren bitartean, ez dute ahalmenik eze-lango baimenik emateko. Gauzak horrela, haren iritziz, ezin dira udalerrri horren lurretan sartu, oraingoz behintzat. ■

### Ubane Madera

*Ekologisten izenean Besaide Mendi taldeko Txus Goikoetxea eta Aitor Astobiza etorri dira. Bailarako mendizale talde denak, ekologistak, AHTren aurkako taldeak, Herri Batasunako kideak eta Gipuzkoako Mendi Federakuntza ordezkatzan dituzte. Abeltzainen izenean Pedro Lasagabaster etorri zaigu. Berak, Gipuzkoako lurjabe eta abeltzain kaltetuen izenean hitzegin digu (24 familia inguru). Energiaren Euskal Erakundearen izenean Joserra Eplederekin hitzeginen izan gara.*

# AS

**ARRASATE**

**KIROLAK**



Kontzeziño, 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 46 12

## CASTOR URIBE (AFAGI)

# “Alzheimerri ezin zai

**Aspaldi erretiratu zen. Orain 81 urte ditu eta lasai bizi da. Hurbiletik jarraitzen du Espainiako Itzulia eta ez du zalan-tzarik: Olanok irabaziko du. Horixe nahi du, behintzat. Orain urte gutxi, berriz, gorriak ikusi zituen Alzheimer gaixotasunak bere emaztea, Juanita Uriarte, jo zuenean.**

— **Nola konturatu zinen emazteak Alzheimer zuela?**

— Garai hartan paseatze-  
ra joaten zen lagunekin Gara-  
gartzaraino. Bueltan Uriba-  
rrin geratzen ziren jokoan egi-  
tera. Halako batean ezin jarrai-  
tu lagunei, pasierak utzi eta  
nirekin hasi zen Uribarrira  
joaten. Poliki-poliki burua gal-  
tzen hasi zen: jokoan galtzen  
zuenean ahaztu egiten zitzaion  
dirua ordaintzea eta horrek ara-  
zoak sortu zizkion lagunekin.  
Ondorioz, etxean geratzen hasi  
zen. Hala ere, bera kontura-  
tzen zen ahalmenak galtzen ari  
zela eta amorratu egiten zen.

Egun batean, Zerrajera ondo-  
an paseoan gindoazela, “bota  
nazazu erre kara” esan zidan.  
Jota geratu nintzen. Nik orduan  
pentsatzen nuen zorutzen hasia  
ote zegoen. Egun batean,  
berriz, Monterronera joan nin-  
tzen hitzaldi batera eta, han  
entzundakoagatik eta batekin  
eta bestearekin berba egin eta  
gero, konturatu nintzen Jua-  
nita Alzheimer gaixotasunak  
jota zegoela.

— **Nolakoa izan zen zure emaztearen gaixoa?**

— Oso gogorra. Beste  
batzuen aldean, gainera, gai-  
xotasunak oso bizkor egin  
zuen bidea. Sasoi batean gauz  
jaiki, komunera joan eta itu-  
rria zabaltzen zuen. Neuk,  
badaezpada, ura moztu behar  
izaten nion sukaldetik. Gauz  
kalera irteteko joera ere izan  
zuen. Atea itxi behar izaten  
nuen, zer gerta ere. Geroago,  
dena aldean egiten hasi zen.

Batzuek gogor egiteko esa-

ten zidaten, baina okerrago.  
Askoz ere eramangariago egi-  
ten da duzun maitasun guztiaz  
tratatzen baduzu. Horrela egi-  
ten saiatu nintzen, nahiz eta  
handiak pasatu genituen.


— **Zenbateraino aldatu zuen zeure bizitza?**

— Denbora guz-  
tian urduri ibil-  
tzen nintzen.  
Ezin nuen  
bere aurre-  
anjan, igo-  
al platerak  
mahaitik  
behara bota-  
tzen zizkidan.  
Ohean bakarrik  
lasaitzen zen.  
Kilo asko  
galdu

nituen egoera hartan. Eskerrak  
AFAGIri, gaixoen familiare-  
koen elkarteari. Horrelako gai-  
xotasun bati ezin zaio bakarrik  
aurre egin. AFAGIn segurtas-  
una aurkitu nuen, aholkuak  
emaztea hobeto zaintzeko.  
Bakarrik geratu banintz, ez  
dakit zer egingo nuen.

— **Izan zenuen laguntasunik?**

— Bi emakume  
etortzen ziren Jua-  
nita zaintzera.  
Udalak bidaltzen  
zuen emakume  
bat goizetan, hiru  
orduz zaindu eta  
pasiaran



**“Batzuek gogor egiteko esaten zidaten,  
baina okerrago. Maitasun guztiaz  
zaintzen nuen, nahiz eta handiak pasatu”**

# o aurre egin bakarrik”

ateratzen zuena. Arratsaldeetan, berriz, beste emakume bat etortzen zen, geuk ordainduta, hiruretatik zortzietara zaintzen zuena. Oso emakume onak ziren. Lan bikaina egin zuten.

**— Gaur dakizuna jakinda, gauzak beste modu batera egingo zenituzke?**

— Askoagatik, bai. Gaur elkarte eta talde asko dago gai horren inguruan lanean, informazio asko zabaltzen dutenak. Askoz ere samurrago eramango nuke.

**— Laguntza taldetan parte hartzen duzu. Zer egiten?**

— Emaztea hil eta gero ere joaten nintzen bileretara. Kontatu egiten nien nik bizi izandakoa, aholkuak eta animoak ematen nizkien. Harrigarria da, hala ere, zer jende gutxi joaten den bilera horietara. Gehienez jota, 12 bat lagun bildu izan gara. Batezbeste, ostera, 5-6 bat lagun.

**— Zeintzuk dira zuen pre-miarik handienak?**

— Osakidetzak ez du behar beste laguntzen. Askotan medikuak “honek ez du erreme-

diorik” esan, bizkarra jaso eta alde egiten du. Gurean ez zen medikurik sartu emaztea ikus-teko. Zoritxarrez, hortik jai dago, zeuk bilatu behar dituzu konponbideak.

**— Zer aholku emango zenioke etxeko batek Alzheimer duela konturatzen den bati?**

— Hasiera-hasieratik jar dadila harremanetan arazo hori duten beste batzuekin eta berba egin dezala. Nonbatetik etorriko zaio laguntza. Ez dezala gorde bere baitan, izugarri sufritzen da eta.

Tuberkulosiaren garaian, jendeak gorde egiten zituen gaixoak etxean. Familiak desohoretzat hartzen zuen etxeko baten bat tuberkulosiak jota hiltzea. Zorionez, hori gainditu zen. Zoritxarrez, antzeko zerbait gertatzen ari da Alzheimer gaixotasunarekin.

**— Herritarrok zenbateraino gaude kontzientziaturik Alzheimerren inguruan?**

— Kontzientzia handirik ez dago. Norbera ondo dabilenean badirudi bazterretan ez dagoela arazorik. Eta ez da horrela ■

99/00 euskara ahora ahora euskara



EUSKARA  
IKASTAROAK

Argibideak eta matrikula:

**ERDU AEK**

Garibai etorbidea, 14 - 3.  
Tel.: 943 77 03 69

oraina  
euskaraz  
da

Maila guztiak

EGA eta  
ALFABETATZEA

Matrikula epea: irailak 29

- Udalaren laguntzaz
- Beka sistema



**izena eman aek-n**

ikasteko zentru eta barnetegiak


# Fagorrek Poloniako Wrozamet enpresa erosi du

Fagor etxetresna elektrikoan kooperatibak eta MCC Inversiones taldeak 5.200 milioi pta.ko inbertsioa egin dute Polonian eta diru horrekin Wrozamet enpresaren %76 erosi dute.

Erosketa honen bitartez, Fagorrek indartu nahi du bere merkatua Europako erdialdean eta ekialdean, horietxek baitira Poloniako enpresaren merkatuak. Wrozamet enpresak ere etxeko tresna elektrikoak egiten ditu. Poloniako merkatuaren erdia ia berea du. Alemanian, Txekian eta Baltikoko herrietan saltzen du batez ere.

Bost urteren buruan Fagorrek hirukoiztu nahi du Poloniakoaren fakturazioa. Horretarako datorren urtean 1.300 milioi pezeta inbertitu behar du.

Bi-hiru hilabete beharko dira erosketa erabat amaitzeko, orain Poloniako Gobernuaren oniritzia behar da eta. Hasieran Wrozamet eta Mastercook izena eramango dute han egingo diren sukalde eta bestelako produktuek, orain arte bezala. Aurrerago baliteke Fagor izena ere eramatea.



Fernando, Gomez-Acedo, Fagorreko zuzendari orokorra.

Poloniako erosketa egin ostean, Fagor Indiarra begira jarri da orain. Arrasate, Bergara eta Basauriko fabrikez gain, Argentinan, Marokon eta Mexikon ere produkzio zentruak ditu.

2003. urterako fakturazioaren erdia esportazioetatik lortu nahi dute Mondragoeko arduradunek.

## EROSKI KATALUNIAN

Eroski ere (MCC taldeko banaketa enpresarik handiena) sendotuz doa Kataluniako sarea. Izan ere, erosi egin ditu Disbor enpresaren 16 supermerkatuak. Dagoeneko 15.000 milioi pta inbertitu ditu Eroskik Katalunian. Bi hipermerkatu eta 45 supermerkatu ditu han. Mila langile baino gehiago.

Nafarroa ere beste horrenbeste egin du Eroskik: Aundia supermerkatu kateak foru erkidegoan dituen hamalau dendak Consum izatera pasatuko dira. Horrela, bada, Eroskik 250 langile gehiago izango ditu Nafarroan. Erosketa honen bidez, Arrasate inguruan sortu zen kooperatibak Nafarroako merkatuaren %16 izango du.

X Bataioak, jaunartzeak, enpresa bazkariak eta lagunartekoak

X Karta eta menu berezien zerbitzua

**DENBORALDIKO PLATERAK, GIRO ONENEAN**




**BASTER-ALDE**  
J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALET A  
Tel.: 943 79 24 58

**CE** **ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak beirina eta kristalak osagaiak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



Alkoholarekin arazoak daukazu? Agian, "Alkoholzale Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

**Alkoholzale Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa) • Tel.: 943 61 93 38




## Golfean ere txapeldunak

Pako Zabala, Marce Gonzalez eta Mikel Etxabe arrasatearrek *El Mundo* egunkariak antolatu duen Golf Txapelketa irabazi zuten joan den ostegunean.

Hirurak afizionatuak dira eta Legutioko golf zelaian aritzen dira astero. Hantxe jokatu da Santander, Errioxa, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoko jokalarien arteko txapelketa.

Pakok, Marcek eta Mikelek, laugarren kide bat izan zuten taldean, Galdakaoko lagun bat. Auvol enpresako Fernando Pradera. Bera izan da taldearen babeslea. Izan ere, golf txapelketa hau lehen aldiz antolatu zenetik, enpresa arloko jendeak osatutako taldeek jokatzeko dute.



Fernando Pradera, Mikel Etxabe, Pako Zabala eta Marce Gonzalez.

Argazkia: Foto Imagen.

Aurten 10.000 enpresak eman dute izena nazioartean. Guztira 125.000 jokalaria.

Arrasateko taldeak Cádiz-en jokatu du Espainiako txapelketa azaroaren 11 eta 14a bitartean. Tartean, eurenkin batera, Katalunia, Levan-

te, Andaluzia eta Madrilgo enpresetako ordezkariak ere arituko dira.

Bigarren txanpa hau irabaziz gero, mondragoetarrok Murtzian jokatu den nazioarteko txapelketan arituko dira. Animo!

## Xake jaialdia Bergaran

Larunbatean Eskola Arteko Txapelketa eta igandean Nazioarteko Xake Txapelketa jokatu dira Bergaran. San Andres Xake taldeko hiru xakelari arituko dira igandean nazioarteko txapelketan. Txema Hernando, Jabier Aspe eta Isidro Ruiz xakelariak osatuko dute hirukotea.

Txapelketa irekia da. Eta goizean eta arratsaldean jokatu da. 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara.

### TORNAY BIGARREN BERE MAILAN

Josu Tornay, San Andres Xake Taldelko jokalaria Vallecasen izan zen asteburuan, Vallecás Hiriko Irekia jokatzeko. 210 xakelari aritu ziren lehian. Nazioarteko maixuak, Espainiakoak, maixu handiak eta afizionatuak. Maila guztietakoak. Tornay bigarren sailkatu zen bere mailan, Vallescasko jokalaria baten atzetik. Azken partida holandar batekin

jokatu zuen eta berdinketa egin zuen. Dirua ere jazo zuen.



## Eskubaloi taldea

Urriaren 2an ekingo diote Arrasate Eskubaloi Taldeko nagusiek ligari. Bitartean, taldea osatu behar. Lan horretan, larunbatean lagun arteko norgehiagoka jokatu zuten, Bergararen aurka.

Bernardo Balerdi izango da aurten ere Arrasate Eskubaloi taldeko nagusien entrenatzailea. Berak adierazi bezala "aurten jokalaria berri asko dugu taldean. Arrasateko eta Almeneko jokalaria dira. Beraz, hezurmamiu egin behar taldea. Denboraldiari dagokionez, mailari eusten saiatu behar gara".

Joan den larunbatean, bada, Arrasate eta Bergara aritu ziren aurrez aurre Iturripen. Lehen zatian nahiko berdinduta ibili ziren bi taldeak. Bigarrean, ordea, alde handitu egin zen eta 19 eta 25 amaitu zen, oraingoan bergarrak nagusi.

Larunbatekoa Arrasate Eskubaloi taldearen hirugarren partida izan zen aurrendenboraldian.

## Gimnasia erritmikoa

Arrasateko Gimnasia Erritmikoko taldeak dagoeneko hasi du denboraldia. Izen ematea zabalik dago, Musakolako kiroldegian. Interesatuak 610 20 50 71ra dei dezakete.



Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72



**ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK**

Basabe Industrialdea 4, EQ- 11 • ARETXABAETA  
Tel/fax. 943 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26



**Lore**  
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 52 50

# Kenci-Arrasate Saskibaloit talde

Kenci-Arrasate Saskibaloit taldeak urrian hasiko du aurtengo denboraldia. Bitartean, eta asteburu honetan zehatzak izateko, txapel-

keta bat jokatuko du Iturrieko kiroldegian.


Hiru talde arituko dira elkarren aurka. Batetik Kenci-Arrasate, bestetik Bolsos

Bergara eta azkenik, Irurok Aloña-Mendi.

Hirurek 30 minutuko partidak jokatuko dituzte. Txapelketa larunbatean

jokatuko da, arratsaldeko 18:00etan.


Deba Garaiko I. Saskibaloit Txapelketa izango da larunbatekoa, Deba Garaian



**Jagoba Gamarra**  
(22 urte)  
1,90 m  
Hegalekoa



**Jokin Lazpiur**  
(19 urte)  
1,86  
Hegalekoa




**Danel Aiastui**  
(27 urte)  
1,83  
Antolatzailea




**Alvaro Coca**  
(urte)  
88  
Antolatzailea



**Gorka Kintana**  
(18 urte)  
1,85  
Hegalekoa



**Jon Basurko**  
(30 urte)  
1,89  
Hegalekoa



**Eneko Gorostidi**  
(27 urte)  
1,92  
Pibota



**Iñaki Garrido**  
(urte)  
90  
Hegalekoa

**URRATS**  
AHOLKULARITZA

CARIBAI, 3  
Tel.: 943 79 87 74  
ARRASATE

... **LILURIA** ...  
OIHALAK

Denboraz prestatu  
Maritxurako jantzia

Zerkaosteta, 5 - Behea • ARRASATE • Tel.: 943 - 79 89 72

**Plus Ultra**  
taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 943 79 20 57

# lelea aurkeztuko da larunbatean

saskibaloia bultzatzeko asmoarekin antolatu dena.

Bide batez, Kenci-Arrasatek taldearen aurkezpen ofiziala egiteko aprobetxa-

tuko du. Entrenatzaile berriaren lana eta etorri diren jolakari berrien jokoa ikusteko aukera beraz, larunbatean Iturripen.

## INTERNET BIDEZ

Kenci-Arrasate Saskibaloitaldeak, gainera, web orri bat ireki du.

Argazkiak, norgehia-


goken laburpenak, partiden egutegia eta bestelako informazioa izango du. Helbidea: <http://www.euskalnet.net/arrasatesb>.




Alvaro Coca  
(urte)  
88  
Antolatzailea



Ander Mallabiarrena  
(22 urte)  
2,03  
Pibota




Iker Errasti  
(22 urte)  
1,90  
Pibota



Gaizka Hernandez  
(18 urte)  
1,80  
Antolatzailea



Iván Errido  
(urte)  
90  
Hegalekoa



Eugenio Aiala  
(24 urte)  
1,85  
Hegalekoa



Lander Errasti  
(31 urte)  
Entrenatzailea

**Larunbatean Arrasate, Bergara eta Oñatiko saskibaloitaldeek, hiruko txapelketa jokatuko dute, arratsaldeko 18:00etan, Iturripen.**



# IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11  
ARRASATE

**ARRASATE  
HOTELA**



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE

## Born Jayk emaitza onak berriz ere

Espainiako Itzulian ez, baina Goierrikoan izan ziren Born Jay taldekoak joan den aste-buruan. Ostiraletik eta igandera bitartean aritu ziren afizionatu mailako txirrindulariak Goierri aldean.

Itzulia Juanma Garate, Iberdrola taldeko txirrindulariak irabazi zuen.

Arrasateko taldea tarteko helmugen sariarekin konformatu behar izan zen. Jabier Miguel izan zen irabazlea.

Ostiralean jantzi zuen helmuga sariko elastikoa eta itzulia bukatu arte aldean eraman zuen.

Jon del Rio tolosarrak ere lehenengo gipuzkoarraren elastikoa jantzi zuen itzuliaren



Angel Vazquez ondo aritu zen Goierriko itzulian.

lehenengo egunean.

Aipatzekoa da, bestalde, Angel Vazquezen lana. Afizionatuetan ari den lehenengo urtea da eta igandeko lasterketan 15. izan zen helmu-

gan. Oso ondo dabil Angel.

Larunbatean San Martin saria izango dute jokoan Bergaran. 23 urtez azpiko txirrindulariak elkartuko dira Bergarako Ibargarai kalean.

Helmuga ere hantxe izango da. Lasterketa arratsaldeko 16:00etan hasiko da.

### FAGOR TALDEA

Fagor taldeko gazteak, bestalde, Oñatin izan ziren larunbatean, San Migel saria jokatze beharra zuten eta.

Bero izugarria egin zuen eta txirrindularien erdiek ez zuten lasterketa amaitu.

Josu Beitia izan zen Fagor taldetik helmugaratu zen arrasatear bakarra. Lasterketa Ciclos Beristian taldeko Mikel Aizpuruk irabazi zuen.

Asteburu honetan Beasainen izango dute beste lasterketa bat.

## Plazaolaren "Artzai" txakurra, bigarren Garain

Iaz *Artzai* lehenengo eta *Xarpa* bigarren. Aurten, igandean, hain zuzen ere, *Artzai* bigarren eta *Xarpa* lehenengo.

Biak artzain txakurrak dira eta igandean Euskal Herriko ardi txakur txapelketako txapel-dun eta azpitxapel-dun gelditu ziren. Irabazlea Abadiño-ko Jose Urien artzaina izan zen, *Xarpa* txakurrarekin.

Bigarren arrasatearrontzat aski ezaguna den Jesus Mari Plazaola izan zen, *Artzai* bere txakurrarekin.

Hogeita hamahiru urtean lehenengo aldiz, sei txakur iritsi ziren azken probara.



Jesus Mari Plazaola eta Artzai.

Garain izan zen. Euskal Herriko Ardi Txakur Txapelketaren 33. aldian.

Jesus Mari Plazaola arrasatearra ere hantxe izan zen. Iazko irabazleak ostiralean esan zigunez, txapela defendatzeko asmoa zuen. Azkenean, ordea, iaz bigarren gel-

ditu zen Abadiño-ko artzainak ostu zion. Guztira 11 txakur aritu ziren eta maila bikaina erakutsi zuten, gainera. Epai-leek Abadiño-ko *Xarpa* txakurrari eman zioten txapela. 299 puntu berak eta 295 Plazaolarenak. Hurrengo hitzordua Oñatin izango da.

### LAN ESKAINTZAK

Arrasateko Udalak aldi baterako lanpostu hau bete nahi du:

#### Irratiko teknikari laguntzaile bat

- **Oinarriak:**  
Udaletxean jaso daitezke.
- **Eskaria aurkezteko epea:**  
Irailaren 27ra arte, berau barne.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

**Kontzeziño**  
kalean dagoen  
gozokidenda  
alokagai

Tel.: 943 77 10 97

**Ipek**  
Denda

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

## Programazio berria eta 10. urteurrena ATBn

Abuztuaren 30ean hasita, ATB egunero ari da albistegiak eskaintzen. Hori eta teletestua. Informazio zerbitzuak lanean ari dira, beraz. Ez dira bakarrak, ordea.

ATBko jendea buru-belarri dihardu udazken-neguko programazioa prestatzen. Aurpegi berriak, dekoratu berriak, formula berriak... ahalik eta telebistarik erakargarriena eskaintzeko.

Iaz batezbeste 27 ordu emititu zuen ATBk. Aurten gainditu egingo da ordu kopurua. 30 ordu izango dira. Itxurari dagokionez, aldaketarik nabarmenenak Berriak albistegi saioan izango dira. ATBko teknikariak birgeriak egin dituzte ETBk utzitako zenbait materialekin eta set ikusgarria prestatu dute. Albistegia bera aurkezteko moduak ere zenbait

aldaketa izango ditu. Aldaketak, beraz, nabarmenduko dira.

ATBk programa berezi bat eskainiko du hil honen 30ean, saio berriak eta datozen aldaketak aurkezteko. Iaz bezala, Marijo Deograsiasek egingo ditu aurkezpenak.

### 10. URTEURRENA

2000. urteko otsailaren 13an ATBk 10 urte beteko ditu. Urteurren honek utziko du bere marka telebistaren programazioan ere. Hainbat ekitaldi antolatuko dira euskaraz lan egiteko Euskal Herrian sortu zen lehen herri telebistaren sorrera ospatzeko.

Arrasate Pressek ere tar-te bat irekiko dio 10. urteurrenari, ATBren historia labur bezain oparora gogorarazteko. Historia, anekdotak, pasadizoak, txutxumutxuak...



Anne Igartiburu.

“Benetan latza iruditzen zitzaidan kamera bati hitz egitea, urduri jartzen nintzen, ahoa zabalik ezer esan ezinean, baina laster ulertu nuen makina eta lente horien atzean norbait zegoela”



# Loramendi kirolak

- Sudaderak
- Prakak
- Txandalak
- Zapatilak
- etab.

# % 50

## ZATOZ!

San Andresen eta Garibain


# Imanol Aranbururen irarlanak erakusgai

Imanol Aranburu arrasateararren irarlanak ikusgai daude Udala auzoko Larrinetxe jatetxean, irailaren 9tik.

Imanol Aranburuk eskulana ditu bizibide, eta lan gehienak enkarguz egiten ditu. Gustuko du bere lana, gainera: "urtesaso batzuetan eskatera handiagoa izaten da, eta bestetan, aldiz, denbora libre dextente izaten dut. Hori dela eta, batzuetan oreka bilatzea ez da hain samurra".

Imanolek 21 grabatu ditu Udalako Larrinetxen, Erti Ederretako Fakultatean landutakoak gehienak, eta Afrikara egindako bidaia batean oinarrituta daudenak: "Afrikako paisajeak, mapak, pertsonak... erakusten ditut irarlanetan".

Irarlanak oinarri bezala erabiltzen ditu Imanolek, gero, horien gainean margotzeko: "grabatua plantxa batean egiten dut. Plantxa normalean zuri-beltzean inprimatzen dut,



Imanol Aranburu artista arrasatearra.

eta gero gainean tintaz edo akuarelaz margotzen dut".

Lehen ikastaroak ere ema-

ten zituen Imanolek, eta orain ere gogoia du horrelako zerbait egiteko. Eibarren aisial-

diari buruzko plangintza batean egin du dagoeneko eskaintza, eta Legazpitik ere hots egin diote ikastaroren bat emateko.

Imanol Aranburuk Erti Ederrak ikasten zebilela ekin zion irarlanak egiteari, duela zortzi bat urte. Aurretik zeramikako eta serigrafiako lanak egiten zituen, ordea, Salamankan erti eta ofizio ikasketak ere egin baitzitu.

## LUIS LARIOS

Imanol Aranbururen irarlanekin batera, Luis Larios argazkilaria madrildarraren hainbat argazki ere ikus daitezke. Aspalditik ezagutzen dute elkar Luis Lariosek eta Imanolek. Larios, gainera, izana da Arrasaten lehenago ere, II. Arte Hamabostaldian parte hartu baitzuen.

Larrinetxe jatetxeko erakusketa urriaren 1a arte izango da zabalik.

## Euskadiko andaluziarren X. topaketa

Irailaren 18an eta 19an Euskal Herriko elkarte andaluziarrak Arruena parkean elkartuko dira, Eroski ondoran. 10. aldiz elkartuko dira aurten Gasteiz, Laudio, Ermua, Durango, Sestao, Portugalete, Santurtzi, Lasarte, Barakaldo eta Arrasateko andaluziarrak.

Topaketa hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu ditu Euskal Herriko elkarte andaluziarren "García Lorca" federakuntzak. Irailaren 18an Federazioko dantza taldeek emanaldia eskainiko dute arratsaldeko zazpitan. Hamarretan, berriz, Flash orkestrarekin dantzaldia izango da. Igandean, oster,



Desfilea ere izaten da andaluziarren egunean.

goizeko 10:30ean hasiko dira ekitaldiak, Faraeko abesbatzek abestutako Errozioren mezarekin. 11:30etik 14:30era dantza taldeek hartuko dute lekukoa, eta eguerdian agintariei harrera egingo zaie. Bazkalostean, dan-

tza taldeak arituko dira berriro oinak astintzen, eta 20:00etan "Alegria de la Sierra" taldearen emanaldi estelarra izango da. Baina ez da hori guztia. Igande guztian gaztelu puzgarriak eta minikars pista egongo baitira.

## Dantza ikastaroa abian

Natalio Maiztegi eta Esther Amoresek dantza ikastaroa jarriko dute abian azaroan. Irailaren 20an bilera izango da ikastaroaren argibideak emateko. 20:30ean izango da, San Viator ikastetxeko gimnasia lekuan.

Areto dantzak, dantza latindarrak, sevillanak eta runbak irakatsiko dituzte Nataliok eta Estherrek. Ikastaroak haurrei eta nagusiei zuzenduta egongo dira, eta hastapen maila izango dute.

Ostegunetan emango dituzte dantza eskolak, bi lekutan: San Isidro eliza ondoko aretoan, arratsaldeko 14:30-16:00, eta San Viator ikastetxean 20:00- 21:30.

A. OIARTZU ETA M. ZUBIA (SEXUALITATE ZERBITZUA)

## “Arrasateko bulegoa aitzindaria da”

Anak eta Maitenak Sexualitate Informazio eta Orientabide Zerbitzuan egiten dute lan duela hiru urtetik. Sexologiako masterra ere ari dira egiten Madrilen, Arrasateko bulegoan izan duten esperientzia giltzarri hartuta.

— Zein iritzi duzue orain arte egindakoaz?

— Oso ona. Arrasateko bulegoa aitzindaria da arrazoi askorengatik: ordutegia, azpiegitura... eta herritar guztiei zuzenduta dago: emakumeei, gazteei, nagusiei... Hondarribian, Irunen eta Gasteizen bakarrak daude hau bezalako bulegoak.

— Zein zerbitzu eskaintzen duzue?

— Aholkuak eta informazioa ematea da gure lana. Telefono bat dugu geurekin harremanetan jarri nahi duenarentzat. Bestalde, bulegoan ere izaten gara, astean lau orduz: astelehenetan 18:00etatik 20:00etara eta ostegunetan 15:30etik 17:30era. Arazo puntualak dituztenek telefono deiak egiten dizkigute, eta askotan hor bukatzen da harremana. Beste batzuetan, telefono deiarekin hitzordua eskatzen digute, eta bestetan zuzenean hona etortzen da jendea.

— Zein motatako jendea etortzen da bulegora?

— Adina eta sexua kontuan hartuta, era guztietako jendea agertu zaigu, eta interesak ere oso bestelakoak izan dira. Honetaz gain, ekintzak ere egiten dira, horretara bideratzen baitugu aurrekontuaren zati bat. Hitzaldiak, lantegiak, kafe berriketaldiak, antisorgailuen inguruko kanpainak, kanpainak ikastetxeetan, herri



hedabideekin hartuemanak...

— Gizarteak sexualitatea “tabutzat” du oraindik?

— Bai, eta normala da. Sexologia zientzia bezala oso gaztea da. Baina sexualitatearekiko ikuspegia aldatu egin da gizartearen.

— Zein da antisorgailurik erabiliena?

— Txapeltxoa edo kondoia, askogatik. Orain 25 bat urte pilula hartzen zen gehien bat. Lehen txapeltxoa ez zen erabiltzen, gizartearen gaizki ikusia baitzegoen. Hiesaren kontuarekin, estatu espainiarrean asko igo da bere erabilera.

— Aurrera begira baduzue ezer eskuartearen?

Irailaren 27tik urriaren 8ra “hurrengo eguneko pilula” izenarekin informazio hamabostaldia eskainiko dugu. Gazte bulegoko sexualitate zerbitzuan izango da, 17:00etatik 20:00etara, egunero. Mahaiak, liburuak, antisorgailuen erakusketa... izango dira.

## aste gazte

### ■ UNIBERTSITATERAKO AUTOBUSAK

• Ikasurte honetan Donostia, Bilbo edo Gasteiza egunero joan-etorria egin nahi baduzu, autobus zerbitzu bereziak daude ikasleentzat. Argibideak Gazte Bulegoan.

### ■ IKASTAROAK

• Gipuzkoako Gorren Elkar-teak zeinu hizkuntzako ikastaro bat antolatu du Donostian. Epea: irailak 20.

• Urtxintxa Elkar-teak urteroko ikastaroak antolatu ditu: astialdiko begiralea, astialdiko zuzendaria, ludotekak, gazte lekuak, malabare lantegia, euskara zuzpertzalea, euskal jolasak, adierazpen lantegia, heziketa berezia, hezkidetza, drogomenpekotasunari aurre hartzea eta 3. adinarentzako eragileak. Ikastaroak Donostian egingo dira. Hainbat egunetan.

### ■ LEHIAKETAK

• Emakumeak kontari VI. Literatura Lehiaketa, Bilboko Emakumearen Udal Sailak antolatuta. 18 urtetik gorako emakumeei zuzenduta, gai librean eta 5-12 orri arteko luzerakoa. Epea: irailak 30.

• Arrasateko Gazte Zerbitzuak antolatuta, X. Argazki lehiaketa *Gazteak eta 2000. Urtea* leloarekin. Bi maila: Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak alde batetik eta 19-35 urte arteko edozein pertsona bestetik. Zuri-beltzean nahiz koloretan, beste lehiaketaren batean sarituak edo noizbait argitaratu gabeak beharko dute. Epea: urriak 8.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65

“Adina eta sexua kontuan hartuta, mota guztietako jendea etorri da bulegora”

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxebizitza salgai Arrasaten. Tel.: 609 42 49 79.

• Etxebizitza jarri berria salgai Bergaran, Ibargarain. Tel.: 610 80 37 19. 18:00etatik aurrera.

### 3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokagai, Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 943 77 00 29. Eguerdian edo gauaz.

• Etxebizitza bat alokatu nahi dut Uribe auzoan: lau gela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Tel.: 943 42 85 71. 16:00-19:00.

• Etxebizitza alokagai, ikasleentzat, Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 617 21 73 45. Gauaz deitu.

### 4. Errentan hartzeko

• Ikasleak gara eta etxebizitza alokatu nahiko genuke Arrasaten. Eskaintzarik baldin baduzu deitu mesedez telefono hauetara: 943 55 44 26 (Jon), 943 55 07 42 (Kepa). 21:00etatik aurrera.

• Lau ikasleak premia handia dugu Arrasaten etxebizitza alokatzeko. Tel.: 946 74 01 74 (Iñigo) eta 945 45 01 10 (Elvira).

• Haur bat izango duen bikote batek etxebizitza behar du hilabete batzuetarako. Tel.: 616 28 68 93 eta 943 79 96 10.

• Bikote batek etxe bat behar du errentan hartzeko (haurrik gabe). Presazkoa da. Tel.: 943 79 67 11 eta 610 73 52 33.

• Arrasaten edo inguruetan etxe txikia eta merkea bilatzen dut. Tel.: 639 48 00 28.

• Etxe partikular baten gela alokatuko nuke. Tel.: 943 18 75 41.

• Bikote batek logela bateko etxe txiki edo teilatupea alokatu nahi du. Tel.: 616 45 23 99.

### 5. Etxeak osatzeko

• Ikasle batek etxebizitza behar du beste ikasleekin batera osatzeko. Tel.: 945 31 70 01. Arantza.

• Bi pertsona behar dira Bilbon (San Inazion) etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 77 13 77 eta 943 44 50 53.

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko, Donostian. Tel.: 670 27

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

65 77 eta 606 25 79 95 (18:30etik aurrera).

• Pertsona batentzako lekua dago etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 23 58 (Iban).

• Logela bat alokatuko nuke langilez edo ikaslez osatutako etxebizitzan. Tel.: 943 67 25 05. Ane.

• Leioan etxebizitza osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 943 71 95 00. Kontxi, 08:00-17:00.

• Bilbon etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Interesatuok deitu 943 79 06 06 telefonora.

• Logela bat alokatu nahi dut erdialdean. Tel.: 943 79 87 59. Tere.

## GARAJEAK

### 9. Errentan emateko

• Garaje bikoitza alokagai, Roneon. Tel.: 943 79 13 56.

### 10. Errentan hartzeko

• Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m<sup>2</sup>ko eta bi solairuko tokia salgai. Tel.: 943 79 07 24. 21:00etatik aurrera.

### 14. Errentan emateko

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100 m<sup>2</sup>ko eta bi solairuko tokia alokagai. Tel.: 943 79 07 24. 21:00etatik aurrera.

• Lanean diharduen negozioa (gozokidenda) alokatzen da Kontzeziño kalean. Tel.: 943 77 10 97.

## LANA

### 17. Eskaintza

• Andra euskalduna prest umeak zaindu, plantxa egin eta etxeko lanetarako. Tel.: 943 79 37 68.

• Andra euskalduna gertu etxeko lanak egin, umeak zaindu edo pertsona nagusiak zaintzeko, arratsaldez. Tel.: 943 79 07 73.

• Auto handia duen ospitale lagun-

tzailea prest pertsona zaharrak eta gaixoak zaindu eta lagutzeko. Tel.: 609 77 01 33.

• Mutil bat prest buzonaketak edo edozein lan egiteko arratsaldez. Deitu 943 79 11 46 edo 943 79 99 83 telefonoetara.

### 18. Eskaerak

• 30 urtetik gorako emakumea behar dut pertsona heldua zaintzeko. Tel.: 629 26 39 45.

• Bordatuak egiteko esperientziadun pertsona bat behar da. Arrasate ingurukoa. Tel.: 943 79 10 43.

• Esperientzia duen jostuna behar da, Arrasate ingurukoa. Tel.: 943 79 10 43.

• Pertsona euskalduna behar dut lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 696 40 40 67. Ez bagaude, utzi mesedez abisua, telefonoa, etab.

• Pertsona bat behar da etxeko lanetarako, orduka lan egiteko. Tel.: 943 79 89-78.

• Ile apaindegi baterako pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 03 63.

• Neska bat behar dut umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 37 03. 19:00etatik aurrera.

• Pertsona bat behar da, ziklomotor gida baimenarekin, afalorduan pizzak banatzeko. Tel.: 943 79 45 64.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• 1. eta 2. hezkuntzarako eskola partikularrak ematen dira euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

• Akademia batek OHO, ESO eta DBHko eskola partikularrak ematen ditu. Dei egin: 943 79 07 24. 21:00etatik aurrera.

• Ingelesko klaseak emateko prest nago, urritik hasita. Tel.: 943 77 10 16.

• Ingelesko eskolak ematen dira. Talde txikiak, egun osoan. Tel.: 943 79 18 70.

• Ingeles eta OHoko eskola partikularrak emango nituzke euskaraz zein gaztelaniaz. Tel.: 943 79 94 98.

• Ingeles Fililogian lizentziadunak ingeleseko eskolak ematen ditu. Tel.: 616 45 23 99.



## 21. Eskaerak

• Pertsona bat beharko nuke orde-nagailuz lan bat pasatzeko. Tel.: 943 79 39 92. Jabi. 15:00-16:30 eta 22:00-23:00.

• Ingelesez hitz egiteko pertsona bat behar dut lehenbailehen. Tel.: 943 79 44 64.

• DBHko 2. mailako ume batek esko-la partikularrak jasoko lituzke. Tel.: 943 79 06 24 eta 943 79 94 52.

• Pertsona bat behar da DBH 2. mailako eskola partikularrak emateko. Tel.: 943 79 45 55. Jon.

• Pertsona bat behar da goi batxilergoko 1. urterako matematikako eskola emateko. Tel.: 943 79 82 25.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Bi urteko Citroen Saxo 1-1i, SS-AY matrikuladuna salgai. Egoera onean. Laneko tel.: 943 76 11 20, eta etxekoa: 943 76 12 66. Xabi.

• Suzuki GSX-F/600 gorria salgai. 90. urtekoa da eta ongi zaindua dago. Tel.: 943 77 18 11. Ruben. 22:00 eta tik aurrera.

• Suzuki Lido 80cc SS-9754AK, 8.500 km. Egoera onean, ITV gainturik. 95.000 pta. Tel.: 943 79 94 21. Fernando, goizez.

• R11 bat salgai, egoera onean. ITV pasata eta urtebeteko seguruaz. Prezioa: 95.000 pta. Tel.: 943 77 16 00. Bulego orduetan.

• Opel Kadet Van diesela salgai. Egoera onean, ITV pasata eta urtebeteko seguruaz. Prezioa: 245.000 pta. Tel.: 943 77 16 00. Bulego orduetan.

• Kawasaki GPZ/400 salgai. Tel.: 943 73 18 72 eta 943 73 12 82.

• Suzuki 50 cm<sup>3</sup>, 10.000 km. egina, gida baimenik barik ematekoa. Salgai Tel.: 943 79 82 06.

• Renault Super 5 GTL, SS-Z salgai. Tel: 943 79 39 39.

• Ossa Phanton kroserako motorra salgai, 250 c.c. 40.000 pta. Tel.: 943 73 18 72 eta 943 73 12 82.

• 1998an erositako motorra salgai, 50 c.c., 200.000 pta. Egoera onean. Tel.: 943 79 58 45.

• Yamaha XT 350 salgai. Txuri-gorria. BI-BJ. 11.200 Km. Kutxa, bi burubebes, giltzarrapoarekin. Prezioa: 375.000 pta. Tel.: 607 44 38 10.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Flex markako literak salgai, egoera onean. Tel.: 943 79 57 64.

• Lehen Jaunartzerako jantzia, neska-bera, behin bakarrik jarritakoa, salgai. Tel.: 945 27 99 16.

• Artzain txakur alemanen arrazako txakurkumeak salgai. Pedigria dute. Tel.: 696 05 73 46.

• Kanpin guria salgai, egoera onean eta handia. Sukaldea doan. Oso prezio interesgarria. Tel.: 943 79 56 06.

• GAC paseatzeko bizikleta salgai. Egoera onean eta oso merkea. Bi plater eta sei pinioi. Tel.: 943 79 56 06.

• Arropa lehorgailua salgai, aire beroa eta guzti. Ez du instalaziorik behar. Tel.: 943 77 18 41.

### 27. Erosi

• Bigarren eskuko mendiko bizikleta merkea erosi nuke. Egoera onean eta aluminiozkoa. Neurri altua. Tel.: 943 79 39 92. Jabi. 15:00-16:30 eta 22:00- 23:00.

• Bigarren eskuko piano bat erosi nahi dut. Tel.: 943 79 73 82.

### 30. Hartu

• Panpinak behar dira lehenbailehen arte lan bat egiteko. Egoera onean bueltatuko dira. Deitu astelehenetik ostegunera bitartean 670 30 02 69 telefonora. Maite.

### 31. Galdu

• Betaurreko graduatuak galdu nituen abuztuan. Granate kolorekoak dira eta funda beltz batean gordeta neuzkan. Aurkitu badituzu, deitu mesedez 943 79 93 63 telefonora. Isabel, eguerdian.


### 32. Aurkitu

• Betaurreko batzuk agertu dira Larragain kaleko garajearen. Tel.: 943 79 86 28.1

### 33. Bestelakoak

• Jar zaitetz sasoiaren energia unibertsalaren bidez. Era guztietako gaitasunak, estresa eta beheraldiak barne. Deitu konpromisorik gabe. Tel.: 943 79 45 74.

*Kalitateak, mugarik ez.*



# ARGI-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa  
Zigorrola, 1 8. Pabilioia  
Tel.: 943 77 11 30  
ARRASATE



**P**asa den larunbatean lehen urte bete zen Anton Markaide abade arrasatearra hil zela. Hori zela eta, Donostian izan ziren ikastolako lagunak eta berarekin batera Arrasateko koruko kide izan zirenak.

Donostiako Sagrada Familia-ko parrokoa zenaren oroitzapen moduan, aragazki hau bidali digute.

Garagartzako eliza atarian dago lagun talde hau, orain hogeit bat urte. Guztiak Arrasateko koruko kideak ziren orduan.

Goitik hasi eta ezkerretik eskuinera: Luis Maidagan, Jose Mari Mendizabal, Julio Iriondo, Santi Etxebarria "Zurdo", Juanito Arzamendi, Anton Markaide eta Jose Ramon Bolinaga "Txori".

Behean, berriz, honakoak: Frantzisko Nafarrete, Oskar

Azkonaga, David Arzamendi, Felix Arriaran eta Pedro Zumelaga.

-----  
*Argazkia eta berriematea:*  
Pedro Zumelaga



**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia  
Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

Zure begiek  
**laster**  
ikusiko dute

**ZAFIRA**



**OPEL**

# KIROLA, NOR BERE BURUAREKIN GUSTURA SENTITZEKO TERAPIA EDERRENA

- Ordutegi zabala.
- Lehen mailako begiraleak.
- Azterketa medikoak, matrikularen barne.
- Talde mugatuak.
- Eskaintza motak: Yoga, aerobica, body sculpting, aretoko dantzak, power dumbell (muskulazioa).
- Lurrun bainuak, doan.

## BAKARRIK EMAKUMEZKOENTZAT!!

Gainera, gimnasioko bazkideek beherapenak dituzte punta-puntako **estetika zentru mistoaren** hainbat zerbitzutan.

### ESTETIKA ZERBITZUAK:

- Behin betiko depilazioa.
- Gorputz eta aurpegi tratamenduak.
- Makilaje iraunkorra.
- Mediku estetizista:
  - Dietak.
  - Barizeak.
  - Mesoterapia (Zelulitiaren aurkakoa).
  - Liposaketak.

Irailerako eta urrirako eskaintza:  
Zutikako eta etzandako solariuma (dutxarekin).

LEHEN: 10 SAIO + 1 = ~~9.000~~ pta.

ORAIN: 10 SAIO + 1 = 8.100 pta.



LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRUA  
EMAKUME-GIMNASIOA

Bixente Ferrer kalea • ARRASATE

Tel.: 943 79 52 17

sofa leku

a, eme... interiores



centro  
hogar  
muebles

grupo



# Amuebladora Mondragonesa

- a. eme. interiores**, Garibai, 9 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 79 15 03  
**a. eme. sukaldeak**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 77 14 92  
**centro hogar muebles**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 77 14 92  
**sofa leku**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 943 77 14 92